

GRADUA: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza

2023 / 2024 ikasturtea

2016-2021 aldiko Espainiako finantza- hezkuntzaren bilakaera

Egilea: Paule Lobato Martín

Zuzendaria: Nerea San Martín Albizuri

Bilbo, 2024ko otsailaren 16



LABURPENA

Lan honetan 2016-2021 aldiko Espainiako biztanleriaren finantza-hezkuntza maila aztertzen da, arlo horretan gizartearentzat hobekuntzak lortzeko asmoarekin. Helburu hori lortzeko, finantza-hezkuntzaren eta-inklusioaren kontzeptuak xehetasunez aztertu dira. Bi termino horiek oso lotuta daude; izan ere, bigarrenak funtsezko zeregina betetzen du pertsona guztiei finantza-produktuak eta -zerbitzuak eskuratzeko aukera ekitatiboa bermatzen, baina haren eraginkortasuna, neurri handi batean, biztanleriaren finantza-ezagutzen oinarri sendo baten mende dago. Hori horrela, Espainiako biztanleriaren finantza-hezkuntza maila ebaluatzeko, Espainiako Bankuak 2021ean egindako Finantza Gaitasunen Inkesta (FGI) erabili eta analizatu da eta horren bidez, ondorioak atera dira gizartearentzat ingurune ekonomiko bidezkoagoa sortzeko.

HITZ GAKOAK: finantza-hezkuntza, finantza-inklusioa, ezagutzak, ekitatiboa, finantza-produktuak eta -zerbitzuak.

ABSTRACT

This paper analyzes the level of Spanish population's financial literacy during the period 2016-2021, with the aim of obtaining improvements for society in this area. To achieve this purpose, *financial education* and *financial inclusion* concepts have been analyzed in detail. Both terms are closely related, as the second one plays a fundamental role in ensuring equal access for all people to financial products and services, but its effectiveness depends to a large extent on a solid financial literacy base of the population. Thus, to assess the Spanish population's financial literacy level, the Financial Capabilities Survey conducted by the Spanish Bank in 2021 has been used and analyzed, which was allowed conclusions to be drawn to create a fairer economic environment for society.

KEY WORDS: financial literacy, financial inclusion, knowledge, fair, financial products and services.

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	6
1.1.	Aurrekariak	6
1.2.	Helburua.....	7
1.3.	Metodologia	8
1.4.	Estruktura.....	8
2.	FINANTZA INKLUSIOA	9
2.1.	Kontzeptua	9
2.2.	Finantza inklusioa neurtzeko aldagaiak.....	11
2.3.	Finantza-inklusioren bilakaera	12
2.4.	Finantza inklusioan eragiten duten faktoreak	14
3.	FINANTZA HEZKUNTZA	16
3.1.	Kontzeptua	16
3.2.	Finantza-hezkuntzaren sorrera eta bilakaera.....	18
3.3.	Finantza-hezkuntzaren eragile-taldeak	21
3.4.	Finantza-hezkuntza sustatzeko programak eta ekintzak.....	24
3.5.	Finantza-hezkuntzaren ondorioak	28
4.	FINANTZA-HEZKUNTZAREN ANALISI PRAKTIKOA.....	30
4.1.	Ezagutza Finantzarioak.....	33
4.1.1.	Generoaren arabera	35
4.1.2.	Adinaren arabera.....	35
4.1.3.	Hezkuntza-mailaren arabera	36
4.1.4.	Autonomia-erkidegoaren arabera	37
4.2.	Produktu Finantzarioen Ezagutza.....	37
4.3.	Produktu Finantzarioen Edukitza	38

4.3.1.	Aurrezteko produktuak	38
4.3.2.	Zorrak.....	40
4.4.	Finantza Produktuen Eskurapena	40
4.4.1.	Adinaren arabera.....	41
4.4.2.	HEZKUNTZA-MAILAREN arabera	42
4.5.	Finantza Produktuen Erabilera	43
4.6.	Diru-Sarreraren gainera dauden gastuak eta horien finantzaketa	45
5.	ONDORIAK	47
6.	BIBLIOGRAFIA	49
	ERANSKINA	55

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1go Grafikoa. Banku kontuen erabileran dagoen genero-arrakalaren alderaketa (2014 eta 2021).	13
2. Grafikoa. 1990etik finantza-hezkuntzako urteko argitalpen kopurua (artikuluak + berrikuspenak)	20
3.Grafikoa. Inflazioari buruzko galderaren erantzun zuzenen %	33
4.Grafikoa. Interes konposatuari buruzko galderaren erantzun zuzenen %	34
5.Grafikoa. Arriskuaren dibertsifikazioari buruzko galderaren erantzun zuzenen %	34
6. Grafikoa. Erantzun zuzenen alderaketa generoaren ikuspegitik.....	35
7.Grafikoa: Erantzun zuzenen alderaketa adin taldearen arabera.....	36
8. Grafikoa. Erantzun zuzenen alderaketa hezkuntza-mailaren arabera.	37
9.Grafikoa. Aurrezki-kontuei eta errenta finkoari buruz entzun duten biztanleriaren %	38
10.Grafikoa. Aurrezteko produktuak dituzten pertsonen ehunekoa, hezkuntza-mailaren arabera	39
11.Grafikoa. Aurrezteko produktuak dituzten pertsonen ehunekoa, adinaren arabera.....	39

12. Grafikoa. Zor-produktuak dituzten pertsonen ehunekoa, adinaren arabera	40
13. Grafikoa. Aurrezki-produkturen bat eskuratu duten pertsonen ehunekoa, adin-taldearen arabera	41
14. Grafikoa. Zor-produkturen bat eskuratu duten pertsonen ehunekoa, adin-taldearen arabera	42
15. Grafikoa. Aurrezki-produkturen bat eskuratu duten pertsonen ehunekoa, hezkuntza-mailaren arabera.....	42
16. Grafikoa. Zor-produkturen bat eskuratu duten pertsonen ehunekoa, hezkuntza-mailaren arabera	43
17. Grafikoa. Azken hamabi hilabetetan aurrezten egon den biztanleriaren ehunekoa, adinaren arabera.	44
18. Grafikoa. Azken hamabi hilabetetan aurrezten egon den biztanleriaren ehunekoa, hezkuntza-mailaren arabera.....	45
19. Grafikoa. Diru-sarrerak baino gastu handiagoak izan dituzten pertsonen ehunekoa.	46
20. Grafikoa. Diru-sarrerak baino gastu handiagoak izan dituzten pertsonen ehunekoa, adinaren arabera.....	46

IRUDIEN AURKIBIDEA

1go Irudia. Finantza-inklusioa neurtzeko aldagaiak	11
2. Irudia. ELGAren datu basean erregistratuta dauden finantza-hezkuntzako programen kopurua.....	22
3. Irudia. Finantza-hezkuntza sustatzeaz arduratzen diren erakunde garrantzitsuenak	24
4. Irudia. Laginaren aldagai nagusiak.	33

TAULEN AURKIBIDEA

1go Taula. Finantza-hezkuntza kontzeptua definitzeko aldagaiak	18
--	----

2. Taula. Finantza-hezkuntza sustatzeko programak eta ekintzak.....	27
3. Taula. Inkestaren laburpen taula.....	32

Laburdurak

- **AEB:** Ameriketako Estatu Batuak
- **CCPC (Competition and Consumer Protection Comission):** Lehia eta Kontsumitzailea Babesteko Batzordea
- **CNMV (Comisión Nacional del Mercado de Valores):** Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala
- **EFPA (Asociación Española de Asesores y Planificadores Financieros):** Finantza Aholkulari eta Planifikatzaileen Espainiako Elkarte
- **ELGA:** Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakuntza
- **ENIF (Encuesta Nacional de Inclusión Financiera):** Finantza Inklusioari buruzko Inkesta Nazionala
- **FGI:** Finantza Gaitasunen buruzko Inkesta
- **FHE:** Finantza Hezkuntzako Plana
- **GAO:** AEBko Gobernuaren kontuak Emateko Bulegoa
- **GJH:** Garapen Jasangarriaren Helburuak
- **GKE:** Gobernu Kanpoko Erakundea
- **HEF:** Hezkuntza Ekonomiko eta Finantzarioa
- **IEB (Instituto de Estudios Bursátiles):** Burtsako Ikasketen Institutua
- **INFE:** Finantza Nazioarteko Sarea
- **PISA (Programme for International Student Assessment):** Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa
- **UK:** Erresuma Batua
- **WSBI (World Savings and Retail Banking Institute):** Munduko Aurrezki Kutxen eta Txikizkako Bankuen Elkarte

1. SARRERA

1.1. Aurrekariak

Finantza-mundua gero eta konplexuagoa da eta kontsumitzaileei gero eta finantza-produktu sorta handiagoa eskaintzen zaie. Merkatuan produktu finantzario gehiago sartzen diren heinean, pertsonak aukera egokiagoak aurki ditzakete beren beharrian eta egoera indibidualerako. Ikuspegi-aldaketa horren atzean dagoen eragile nagusietako bat “finantza-inklusioa”-ren kontzeptua da: pertsona eta enpresa guztiei funtsezko finantza-zerbitzuak eskuratzeko aukera bermatzen du, modu eskuragarri eta ekitatiboan. Horrela, ekonomia aurreratuetakoa gobernuak onartu dute finantza-inklusioa funtsezkoa dela finantza-eremuan egonkortasuna eta osotasuna lortzeko. Hala ere, nahiz eta gizabanako guztietara egokitu daitezkeen produktu finantzarioak egon, finantza-hezkuntza funtsezkoa da portaera ekonomiko eta finantzarioak ulertzeko. Finantza-kudeaketa egoki batek, maila indibidualean mesede egiteaz gain, gizartean ongizate orokorra ere egiten du, pertsonak gaitzen baititu beren baliabideak eraginkortasunez administratzeko eta aukerak nahiz finantza-arriskuak ulertzeko.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako (EAZ) graduan lau urte eman ondoren, konturatu naiz finantzen munduak atentzio handia ematen didala. Horregatik, GRALaren gaiari buruz pentsatzen hasi nintzenean, gai horrekin lotuta egongo zela erabaki nuen eta, azkenean, finantza-inklusioari eta -hezkuntzari buruz aritzea adostu nuen. Gai hau aukeratzeko arrazoiak anitzak izan ziren, baina nabarmentzekoak dira bi arrazoi. Lehenik eta behin, ekonomia eta finantzei buruz ikasi dituen norbait naizen aldetik, aztertu dut pertsonak, batez ere gazteek, finantza-edukiak ulertzeko gogo gutxiago dutela. Nire ustez, ukapen hori hainbat faktoreri egotz dakioke, hala nola finantza-informazio egokia eskuratzeko aukerarik ez izateari, finantza-kontzeptuek hautemandako konplexutasunari edo finantza-kudeaketan hasierako interesik ez izateari.

Bigarrenik, gai hau aukeratu dut genero-berdintasunerako lagungarria delako. Nik, neska naizen aldetik, ikusi dut finantzen munduan eta bizitzako esparru gehiagotan bidegabekeria asko egon dela eta izaten jarraitzen duela sexuen artean. Horregatik, bi kontzeptu hauek aztertu ditut; izan ere, alde batetik, finantza-inklusioak emakumeak finantza-zerbitzuetara iristea errazten duelako, ekonomikoki ahaldunduz eta genero-berdintasuna lortzen lagunduz. Bestetik, finantza-hezkuntzak finantza-ezagutzak ematen dizkielako emakumeei, eta

ezaguera horiek funtsezkoa izan daitezkeelako independentzia ekonomikorako eta familiako finantza-erabakietan parte hartzeko.

Aipatzekoa da ere, finantza-inklusioa eta finantza-hezkuntza Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren Helburu (GJH) batzuekin lotura zuzena dutela. Alde batetik, lehenengo GJHri dagokionez, finantza-inklusioak diru-sarrera txikiak dituzten pertsonen finantza zerbitzuak (banku-kontuak, esaterako) eskuratzeko aukera areagotzen du eta, bestalde, finantza-hezkuntzak pertsonak gaitzen ditu erabaki finantzario informatuak hartzeko eta baliabideen kudeaketa hobetzeko. Ondorioz, bi kontzeptu hauek pobrezia murrizten lagun dezakete. Bestetik, gizartean dauden taldeen arteko desberdintasunak murrizten ditu finantza-arrakalak gutxitzen ere laguntzen dutelako. Izan ere, talde marjinetuei finantza-zerbitzuetarako sarbidea ematen die eta gizarteko hainbat talderi finantza-ezagutzak eskaintzen dizkie.

1.2. Helburua

Lan honen helburu nagusia 2016-2021 aldirako Espainiako finantza-hezkuntza mailaren bilakaera aztertzea da.

Helburu nagusi hau lortzeko, bigarren mailako helburu hauek ezarri dira:

- Finantza-inklusioa eta finantza-hezkuntza kontzeptuak definitzea eta haien arteko lotura ikertzea.
- Hezkuntza finantzarioaren sorrera eta izandako bilakaera analizatzea.
- Digitalizazioa eta teknologia berriak, hots, mugikorrek eta online bidezko bankuek, finantza-hezkuntzaren sustapenean eta inklusioaren hobekuntzan duen zeregina aztertzea.
- Hezkuntza finantzarioa aurrera eramateko dauden eragile-taldeak eta egiten dituzten ekintzak eta programak ikertu, haien eraginkortasuna ebaluatzeko.
- Espainiako Bankuak 2021ean egindako Finantza Gaitasunen Inkesta analizatzea eta 2016tik egondako aldaketak ikustea.
- Aldagai demografiko desberdinak, hala nola, adina, generoa eta hezkuntza-maila, finantza-hezkuntzaren eraginkortasunari nola eragin diezaioketen aztertzea.

1.3. Metodologia

Lan hau egiteko, metodologia analitiko-sintetikoa jarraitu dut. Metodo hau batera jarduten duten alderantzizko bi prozesu intelektuali egiten die erreferentzia: analisia eta sintesia. Analisia multzo bat hainbat zati eta nolakotasunetan mentalki banatzean datza, haren erlazioak, propietateak eta osagaiak aztertuz. Honek elementu bakoitza banaka ikertzen laguntzen du. Sintesia, aldiz, analisiaren kontrakoa da. Aldez aurretik aztertutako zatiak konbinatzen ditu eta errealitateko elementuen arteko erlazioak eta ezaugarri orokorrak deskubritzeko aukera ematen du. Oro har, analisisan definitutako ezaugarri jakin batzuk orokortzean oinarritzen da.

Laburbilduz, bi prozesu horiek, analisia eta sintesia, elkarrekin jarduten dute. Analisia multzoaren zati bakoitzaren propietateen eta ezaugarrien sintesiaren bidez egiten da; sintesia, berriz, analisisik lortutako emaitzetan oinarritzen da (Rodríguez & Perez, 2017).

Lan honetan finantza-inklusioari eta -hezkuntzari buruz dauden funtsezko ideien sintesia gaian adituak diren egileen ezagutzatik abiatzen da. Ezagutza horiek hainbat testu zientifikotatik; hala nola, artikulua, txostenak edo aldizkariak, atera dira, eta horien edukia aztertu da, lan honen helburu nagusia lortzeko. Bestetik, analisia Espainiako Bankuak 2021ean egindako Finantza Gaitasunen Inkestan (FGI) oinarritzen da. Bertan, Espainiako finantza-hezkuntzaren egoeraren bilakaera aztertzen da, hain zuzen ere, 2016 urtetik egon diren emaitza eta aldaketa guztiak. Inkestaren helburua da biztanleriaren gaitasun finantzarioen maila neurtzea, nazioartean konparatzeko moduan. Bertan parte hartzen duten gizabanakoek 18 eta 79 urteko heldu espainiarrak dira (Gavilán, 2023).

1.4. Estructura

Lehenengo puntu honetan lanaren sarrera jorratzen da. Bertan gaiaren aukeraketaren zergatia, helburuak, metodologia eta estructura aipatzen dira. Ondoren, bigarren puntuan, finantza-inklusioaren kontzeptua aztertzen da. Horretarako hainbat autorek emandako definizioak aipatzen dira, kontzeptuak izandako bilakaera aztertzen da eta, orokorrean, inklusioan eragiten duten faktoreak izendatzen dira.

Bestalde, bigarren puntua finantza-hezkuntzan oinarritzen da. Puntu hau oso garrantzitsua da eta sakon ikertzen da. Hasieran, kontzeptua definitzen da eta haren sorrera eta bilakaera aztertzen da. Ostean, finantza-hezkuntza sustatzeko dauden eragileak eta beraiek egiten

dituzten ekintzak eta programak analizatuko dira. Era berean, kontzeptuaren analisi kuantitatiboa egingo da. Horretarako, aurreko puntuan aipatu den moduan, Espainiako Bankuak 2021 urtean egindako Finantza Gaitasunen Inkesta analizatuko da. Bostgarren puntuan lanaren ondorioak plazaratzen dira eta, ondoren, bibliografia biltzen da. Bukatzeko, eranskinak.

2. FINANTZA INKLUSIOA

Bigarren puntu honetan finantza-inklusioren kontzeptua azalduko da, hainbat erakunde eta adituk emandako definizioak aztertuz eta alderatuz. Ondoren, gaur egun kontzeptu honi buruz egindako inkestak eta azterlanak egiteko erabiltzen edo neurtzen diren aldagaiak aipatuko dira eta, ondoren, finantza-inklusiok mundu mailan izandako bilakaera azalduko da; aldagai batzuk izandako bilakaera aztertuz. Azkenik, inklusioa areagotzen duten faktoreak aipatuko dira.

2.1. Kontzeptua

Finantza-mundua gero eta konplexuagoa da eta kontsumitzaileei gero eta finantza-produktu sorta handiagoa eskaintzen zaie. Hau finantza eboluzioren eta kontsumitzaileen beharren eta lehentasunen bilakaeraren ondorioz gertatu da. Finantza-produktuen ugartze hori zenbait faktorek eragin dute: aurrerapen teknologikoak, kontsumitzaileen beharren aldaketa, globalizazio finantzarioa, merkatuen kompetentziaren igoera, etab. Aipatzekoa da ere, COVID-19ak sortu zuen egoera. Pandemia honek agerian utzi zuen finantza-zerbitzu seguruak eta digitalak eskuratzeko beharra, krisi sanitarioak bizkortu egin baitzuen finantza-teknologiaren erabilera, hala nola, mugikorra bidezko ordainketak edo online bidezko bankuak (Tay Tai & Tan 2022).

Finantza-produktu eta -zerbitzu ugari edukitzeak aurretik banku-zerbitzurik ez zuten pertsonak banku-kontuak ireki, maileguak eskuratu eta inbertitu ahal izateko aukerak sortzen ditu. Era berean, merkatuan finantza-produktu gehiago sartzen diren heinean, pertsonak aukera egokiagoak aurki ditzakete beren beharrizan eta egoera indibidualerako (Clichici & Moagăr-Poladian, 2022).

Ikuspegi-aldaketa horren atzean dagoen eragile nagusietako bat “finantza-inklusioren” kontzeptua da. Kontzeptu oso zabala da eta hainbat dimentsio hartzen ditu, baina, orokorrean, bezeroaren ongizatera bideratuta dago finantza-produktu eta -zerbitzuetarako sarbide

gardena emanez. Munduko Bankuaren arabera, “finantza inklusioa pertsonak eta enpresek finantza-produktu eta -zerbitzu erabilgarriak eta eskuragarriak izatea bermatzen du, euren premiei erantzuteko (transakzioak, ordainketak, aurrezkiak, kreditua eta aseguruak) eta modu arduratsu eta jasangarrian emateko (World Bank, 2022). Bestalde, Serratok (2021) adierazten du finantza-inklusioak hainbat finantza-produktu eta -zerbitzu modu seguru, egoki eta eraginkorrean erabiltzeko aukera ematen diela biztanleei. Horrek aukera ematen du ahalik eta pertsona gehienengana iristeko, ahalik eta gastu txikienarekin; eta horrela, komunitateen, eskualdeen eta herrialde osoaren aurrerabideari lagunduz.

Ildo beretik, Aziz *et al.* (2021) arabera, finantza-inklusioaren kontzeptua honako hauek bermatzen dituen prozesu gisa aplikatu daitezke: “arazorik gabeko irisgarritasuna, finantza-sistema formalaren eskuragarritasuna eta erabilera aktiboa, eta ekonomia bateko kideei, akademikoari, gizarteari eta profesionalei ematen zaizkien zerbitzuak”. Bestetik, Babajide *et al.*, -ek finantza-bitartekaritzako zerbitzuen kopurua, kalitatea eta eraginkortasuna handitzea dakarren prozedura gisa definitzen dute finantza inklusioa.

Oro har, esan dezakegu, inklusio finantzarioa pertsonak, bereziki pobreak, finantza-sektore formalean oinarritako finantza-zerbitzuak eskura izatea bermatzeko prozesua dela (Allen *et al.*, 2016; Ozili, 2018).

Definizio horiek aztertuz, ondorioztatu daitezke adostasun zabala omen dagoela kontzeptuaren inguruan. Zentzu honetan ideia orokor bat islatzen da: finantza-inklusioak pertsona eta enpresa guztiei funtsezko finantza-zerbitzuak eskuratzeko aukera bermatzen duela, modu eskuragarri eta ekitatiboan. Gainera, finantza-inklusioak funtsezko zeregina betetzen du pobrezia-aren aurkako borrokan eta oparotasunerako bidean. Izan ere, Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) lortzeko funtsezko tresna politikotzat ere hartzen da. Ekonomia aurreratuetako gobernuek onartu dute finantza-inklusioa eta kontsumitzailearen babesa funtsezkoak direla finantza-eremuan egonkortasuna eta osotasuna lortzeko eta zenbait proiektu eta ekintza abian jartzea adostu dute, agenda politiko eta akademikoan leku nabarmena hartuz (Ozili, 2021).

Hala ere, oraindik aztertu eta ebazteko garrantzitsuagoa den egoera, garapen bidean dauden herrialdeena da. Hainbat azterlanek ikertu dituzte zenbait eskualdetan biztanleriaren zati handi batek ezin dituela finantza-produktuak eta -zerbitzuak eskuratu. Izan ere, Zinz & Weillek 2016an egindako azterketan, Afrikako nazioetako finantza-inklusioaren zenbait alderdi ebaluatu ziren, eta finantza-sisteman parte hartzeko aukera gutxien duten


biztanleriaren segmentuak ezagutarazi ziren, hala nola emakumeak, gazteak eta baliabide eta prestakuntza mugatuak dituzten pertsonak. Ildo beretik, Fungáčová & Weill autoreak ere antzeko patrioiak hauteman zituen 2015. urtean finantza-sistematik baztertutako biztanleen artean, BRIC bezala ezagutzen diren herrialdeetan (Brasil, Errusia, India eta Txina). Azterketa hauek azpimarratzen dute garapen bidean dauden nazioetan oraindik ere garrantzitsuagoa dela baztertuta dauden pertsonen ezaugarrietara egokitzen diren finantza-inklusioko politikak ezartzea. Izan ere, finantza-inklusioren eta garapen ekonomikoaren arteko harremana finantza-erakunde ofizial, iraunkor eta inklusiboen sorreran oinarritzen da; erakunde horiek aurrezpena, inbertsioa eta, ondorioz, hazkunde ekonomikoa bideratzen baitituzte garapen bidean dauden herrialdeetan (Orazi *et al.*, 2019).

2.2. Finantza inklusioa neurtzeko aldagaiak

Herrialde batean finantza-inklusiok aurrera nola egiten duen jakiteko, hainbat metodologia eta ikuspegi proposatu dira biztanleriaren barruan finantza-adierazleak neurtu, ebaluatu eta gainbegiratzeko.

2016an, *Global Partnership for Financial Inclusion* (GPII) delakoak 24 aldagai proposatu zituen, biztanleriaren finantza-inklusioren maila ebaluatzeko aukera ematen dutenak. Adierazle horiek honako alderdi hauek hartzen dituzte barnean, besteak beste:

Igo Irudia. Finantza-inklusioko neurtzeko aldagaiak.



Iturria: Norberak eginda Serrato (2021) oinarrituta

Adierazle horiek finantza inklusioaren ikuspegi integrala ematen dute, baita eskualdeen eta herrialdeen arteko konparazioak egiteko aukera ere (Serrato, 2021).

Adierazle horiek guztiak, Munduko Bankuaren *Global Findex* datu-basean islatzen dira. Datu-base horrek finantza-zerbitzuen eskuragarritasun globalari heltzen dio, eta mundu-mailako finantza-inklusioari dagokionez iturri garrantzitsuenetako bat bezala ezagutzen da. Inkesta 2011tik hiru urtean behin egiten da, mundu osoko banku-kontuen titulartasuna kuantifikatuz. Edizio berriena *Global Findex 2021* da eta 123 herrialdeetako 128 pertsona inguruko lagin batetik abiatuta egin zen. Txosten honek finantza-zerbitzu formal eta informalen erabilerraztasunari eta erabilerari buruzko adierazle eguneratuak ematen ditu, bai eta transakzio digitalei buruzkoak ere (Santander, 2023).

2.3. Finantza-inklusioaren bilakaera


Lehen aipatu dugun moduan, finantza-inklusioari buruzko azken inkesta 2021ean egin zen eta azterketa horretatik ateratako ondorio gehienak baikorrak izan dira. Azken hamarkadan, 2011tik 2021era bitartean banku kontu bat duten helduen ehunekoak nabarmen egin du gora: %51tik %76ra. Hazkunde hau, bereziki, garapen bidean dauden ekonomietan eman da, izan ere, kontuen titulartasuna 30 puntu inguru hazi da (2011n %42 izatetik 2021ean %71 izatera igaro baita), eta esan daiteke digitalizazioa izan dela hazkunde horretako funtsezko faktorea (Santander, 2023).

Hala ere, kontuen eskuragarritasunak gora egin duen arren, oraindik ere alde nabarmenak daude zenbait eskualdeetan. Erdialdeko Amerika, Afrika gehiena, Ekialde Ertaina eta Hego eta Ekialdeko Asiako herrialde pobretuenak bezalako eskualdeetan, oraindik sarbidea mugatua da. Garapen bidean dauden 45 herrialdeetan, erabilera %50etik beherakoa da, eta beste 23 herrialdeetan, erabilera %50etik gorakoa bada ere, ehuneko horretatik beherakoa da. Estatu ahuletan, sarbidea are txikiagoa da, helduen %37k baino ez baitu kontu bat (Sirtaine, 2023).

Era berean, inkestak islatzen du, batez beste, garapen bidean dauden ekonomietan, genero desberdintasuna, kontuak izateari dagokionez, lehen aldiz murriztu egin dela azken hamarkadan, hain zuzen ere, ehuneko sei puntutan (Santander, 2023). Baina, egoera aldatu egiten da herrialde desberdinetan. Adibidez, 1. grafikoan ikus daitekeen bezala, Saharaz hegoaldeko Afrikan, Latinoamerikan eta Kariben, emakumeak oraindik ere atzean daude

gizonekin alderatuta, eta genero-arrakala handitu egiten da finantzaketari dagokionez (Sirtaine, 2023).

Igo Grafikoa. Banku kontuen erabileran dagoen genero-arrakalaren alderaketa (2014 eta 2021).



Iturria: Sirtaine, 2023.

Izan ere, 41 herrialdetan, oraindik ere %10eko arrakala dago gizonen eta emakumeen artean finantza-zerbitzuak eskuratzeari dagokionez. Hauskortasunak, gatazkek edo indarkeriak eragindako nazioetan, oro har, emakumeek gizonek baino %37 aukera gutxiago dituzte banku kontu bat eskuratzeko.

Bestalde, *Global Findex 2021* azterlanak teknologiak finantza-sisteman duen garrantzi erabakigarria nabarmentzen du. Finantza-zerbitzu digitalek, hala nola diru mugikorrek, txartelak, txartel elektronikoak eta konturako ordainketa zuzenak, hazkunde nabarmena eragin dute mundu osoan kontuen jabetzan eta erabileran, eta, horrela, finantza-inklusio globala hobetzen lagundu dute (Santander, 2023). Inkesta horren arabera, 2014 eta 2021. urteen artean, bikoiztu egin zen garapen-bidean dauden ekonomietan transakzio digitaletan parte hartzen duten proportzioa, %26tik %51ra igo baitzen (Demirgüç-Kunt *et al.*, 2022). Aurrerapen hau abiadura oso handian eman da eta, herrialde batzuetan, hala nola Txinan, gailu mugikorretan oinarritutako zerbitzuak eskudiruaren erabilera desplazatzen ari dira.

Txinako testuinguru espezifiko honetan, mugikorren bidezko ordainketa transakzioen bolumena bikoiztu egin zen 2015etik 2018ra (Barruetabeña, 2020).

Puntu honekin amaitzeko, aurrezteko joera aztertzen badugu, esan beharra dago, 2020an eta 2021. urteetan, espainiarrek nabarmen handitu zituztela euren aurrezkiak pandemiak eragindako murrizketen ondorioz. Hain zuzen ere, 2020an lortu zen %18 inguruko aurrezki-tasa aurreko bost urteetako batezbestekoa baino nabarmen handiagoa izan zen (Delgado, 2023). Hala ere, 2022an, familien aurrezki-fluxuak nabarmen egin zuen behera, %8,4ko inflazioari eta kontsumo-mailari eusteko beharrari aurre egin behar zitzaielako. Izan ere, prezioen igoeraren eta interes-tasen igoeren ondorioz, familiek beren aurrezkiak erabili zituzten kontsumoari eusteko (Olcese, 2023).

2.4. Finantza inklusioan eragiten duten faktoreak

Finantza inklusioa bultzatzeak esan nahi du pertsoneri eta komunitateei finantza zerbitzuak eskuratzea eragotz diezaieketen erroka eta oztopo batzuei aurre egin behar zaiela. Jarraian, finantza-inklusion aurrera egiten lagundu dezaketzen zenbait faktore azalduko dira.

Lehenik eta behin, argi dago hazten ari diren ingurune ekonomikoetan aukera gehiago daudela finantza-inklusionarako, enplegu gehiago sortzen diren eta biztanleriaren erosteko ahalmena handitzen den heinean. Antúnezek (2011) dio hazkunderari buruzko teoria ekonomikoek gizarte baten barruko ondasunen eta zerbitzuen produkzioaren hazkunderari egiten diotela erreferentzia. Izan ere, finantza-inklusiok berebiziko garrantzia du garapen ekonomikoaren sustatzaile gisa, enpresei aberastasuna sortzeko aukera ematen dielako eta gizarteari finantza-baliabideak eskuratzeko aukera ematen dielako (Jiménez *et al.*, 2023).

Bestalde, teknologia aurreratuen erabilera finantza-zerbitzu digital berritzaileak sartzea eta ohiko sukurtsal, agente eta kutzazainen sareak ez diren banaketa-kanalak zabaltzea sustatzen ari da. Horrek esan nahi du aurretik finantza-zerbitzuetarako sarbide osoa edo partziala ez zuten milioika pertsona, eskudiruzko transakzioen ordez finantza-aukera formalagoak erabiltzen ari direla. Aldaketa horrek, batez ere, laguntza handia du telefono mugikorrek gero eta gehiago erabiltzen direlako. Izan ere, Munduko Bankuak ere aitortzen du gailu mugikorren eta Interneten bidez eskuragarri dauden finantza-zerbitzuen belaunaldi berriak nabarmen lagundu duela arlo horretan aurrera egiten (Barruetabeña, 2020). Beraz, argi dago digitalizazioaren garapenak eta erabilerak, hala nola mugikorraren aplikazioak edo online plataformak, nabarmen zabaltzen dutela finantza-zerbitzuetarako sarbidea eta, teknologia berri

horiei esker, banku-kontuak, diru-transferentziak, maileguak eta ordainketak modu komenigarriagoan eta eskuragarriagoan egin daitezkeela.

Ondoren, finantza-inklusioko politika nazionalak herrialde bateko erakunde publiko eta pribatuen arteko ahaleginak koordinatzea errazten dute, finantza-zerbitzuen eskuragarritasuna, erabilera eta kalitatea areagotzeko helburuarekin. Ekimen publikoek zein pribatuek finantza-inklusioa bultzatzea, irtenbide berritzaileak garatzen eta finantza-zerbitzuen irismena zabaltzen lagunduz. Horregatik, herrialde askok Finantza Inklusioko Inkesta Nazionala (ENIF) ezarri dute, politika nazional gisa uler daitekeena. Estrategia horrek, plan, erantzukizun eta helburu argien bidez, agintarien eta sektore pribatuaren arteko koordinazioa hobetzen du, finantza-inklusioa sustatzen duten neurriak ezartzeko. Horrez gain, arau-esparru argi eta mesedegarri batek ere pizgarriak ematen eta oztupoak ezabatzen dituzten finantza-zerbitzu inklusiboen garapena sustatu dezake (Alianza & Pacífico, 2023).

Arlo sozialari dagokionez, finantza-zerbitzuetarako sarbidean genero-berdintasuna sustatzea finantza-inklusioren osagai garrantzitsua da. Finantza inklusioa emakumeak ekonomikoki ahalduentzeko funtsezko elementu bihurtu da, eta genero-berdintasunerako bidean ikur gisa nabarmendu da. Horregatik, beren trebetasunak indartzeko eta garapen komunitarioan laguntzeko ahaleginetan, erakunde multilateralek eta gobernuek gero eta gehiago aitortzen dute garrantzitsua dela emakumei finantza-zerbitzuetarako sarbidea ziurtatzea eta erraztea (Carballo, 2020).

Azkenik, finantza-hezkuntza ezinbestekoa da pertsonak finantza munduan ahalduentzeko eta beren finantzei buruzko erabaki informatuak hartzen laguntzeko. Finantza-hezkuntzako programek finantza-kontzeptuen ulermena areagotu dezakete, aurrezki eta inbertsio arduratsuak sustatu, eta gehiegizko zorpetze-arriskua murriztu (Morgan & Long, 2020).

Eguneroko bizitzan finantza-informazioa ulertzeko eta etorkizunerako finantza-planak sortzeko gaitasuna ezinbestekoa da ongizate pertsonalaren maila egokia lortzeko. Gainera, finantza-erabakietan aukera sortzen dituzte: finantza-erabakia garatuak dituzten gizabanakoek finantza-erabaki egokiagoak har ditzakete, erretirorako aurrezkiak planifika ditzakete eta inbertitzaile gisa dituzten arriskuak dibertsifika ditzakete (Clichici & Moagăr-Poladian, 2022). Hala eta guztiz ere, biztanleriak duen finantza-erabakia mugatua dela eta, zenbait arrisku sortzen dira produktu horien abantailei eta desabantailei buruz. Ulermen-falta horrek zerikusia du, neurri batean, hezkuntza-erakundeetan Hezkuntza Ekonomiko eta Finantzarioko (HEF) programa gutxi ezartzearekin. Horrenbestez, ezinbestekoa da gazteak

txiki-txikitatik gaitzea ekonomia- eta finantza-arloetan “herritar arduratsu” bihur daitezzen, eta, horrela, baldintza sozialak, ekonomikoak, politikoak, administratiboak eta kulturalak hobetzen laguntzea (Torres Bareto *et al.*, 2021).

Ondorioz, esan daiteke finantza-hezkuntzaren eta finantza-inklusioaren arteko erlazioa noranzko bikoia izan daitekeela: finantza-ezagutzen maila handiagoak finantza-inklusioa bultzatzen dezake; eta era berean, banku-kontuak edo kreditu-txartelak bezalako finantza-zerbitzuak erabiltzeak kontsumitzaileen finantza-ezagutza hobetu dezake.

Duen garrantzia azpimarratu ondoren, lan hau finantza-hezkuntzan zentratuko da. Literaturan hainbat lan aurkitu daitezke bi kontzeptu hauen arteko erlazioa aztertzen zentratu direnak. Baita finantza-hezkuntza arakatu duten adituak. Hori, zalantza gabe, gaiak duen gora handiko kutsuaren isla da. Are gehiago, eta benetan axola duena, finantza hezkuntza ezinbestekoa da finantza inklusioa lortzeko. Beraz, gaiaren inguruan egiten diren hausnarketa guztiak, bai teorikoak bai enpirikoak, bere ulermena eta praktikan jartzea hobetuko dute, gizartean zehar zabalduz.

3. FINANTZA HEZKUNTZA

Lanaren hasieran azaldu den moduan, lan honen helburua finantza-hezkuntzak finantza-inklusioa sustatzeko faktore gisa duen zeregina aztertzea da. Horretarako, hirugarren puntu honetan finantza-hezkuntzari buruzko hausnarketa sakona egingo da. Hasteko, hainbat definizio aztertu eta alderatuko dira, ondoren kontzeptu honen sorrera zein den eta gaur egunera arte izandako bilakaera ikertuko da. Bestalde, finantza-hezkuntza areagotzen diharduten eragile taldeak aztertuko dira eta, era berean, egiten diren ekintzak eta programak azalduko dira, neurtzen diren aldagaiak aipatuz. Azkenik, Espainiako Bankuak egindako Inkesta baten analisi kuantitatiboa egingo da emaitzak aztertuz eta ondorioak ateraz.

3.1. Kontzeptua

Pertsona batek bere finantzak kudeatzeko duen gaitasuna faktore garrantzitsuenetako bat da bizitzan arrakasta lortzeko (Farida *et al.*, 2021). Izan ere, finantza-kultura funtsezkoa da portaera ekonomiko eta finantzarioak ulertzeko, hala nola erretiroaren plangintza, aurrezkia, akzioetan inbertitzea eta finantza-merkatuetan parte hartzea (Mbukanma & Rena, 2022). Finantza-kudeaketa egoki batek, maila indibidualean mesede egiteaz gain, gizartean ongizate orokorra ere egiten du, finantza-gaiak maneiatzeko ezagutzak eta trebetasunak edukitzeak

eta erronkak ekonomikoen aurrean arduraz jokatzek asebete finantzarioa baitakar (Farida *et al.*, 2021).

Finantza hezkuntzari buruz asko aztertu egin da eta hainbat aditu eta erakunde kontzeptua definitu dute. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) arabera (2023), finantza-hezkuntza honela definitzen da: “gizabanakoek finantza-kontzeptuak eta -produktuak hobeto ulertzeko eta erabaki informatuak hartzeko, arriskuak eta finantza-aukerak ebaluatzeko eta beren ongizatea hobetzeko beharrezkoak diren trebetasunak garatzeko prozesua”. Bestalde, Espainiako Bankuaren (2022) arabera finantza-hezkuntza informazioaren eskuragarritasun hutsetik haratago doa, eta ezagutzetara, jokabideetara eta jarreretara zabaltzen da, bizitzan zehar finantza-erabaki egokiak hartzeko, finantza-ohitura osasungarriak izateko eta kontratatzen ditugun finantza-produktuen aukerak eta arriskuak ezagutzeko (kontuak, txartelak, kredituak, hipotekak...). Aldiz, Jump Start Coalition¹ erakundeak (2007) dio alfabetatze finantzarioa bizi osoko segurtasun finantzarioak baliabide finantzarioak eraginkortasunez kudeatzeko ezagutzak eta trebetasunak erabiltzeko gaitasuna dela. Era berean, AEBko Gobernuaren Kontuak Emateko Bulegoaren (GAO) arabera finantza-ezagutza izateak administrazioari eta diruaren egungo eta etorkizunerako erabilerari buruzko erabaki informatuak hartzeko eta ekintza eraginkorrak gauzatzeko trebetasuna da. Trebetasun multzo horren barruan sartzen dira finantza-aukerak ulertzea, etorkizuna planifikatzea, gastu zuhurra eta finantza bizitzako gertaerei lotutako erronkak kudeatzeko gaitasuna izatea, hala nola enplegu-galera, erretirorako prestakuntza eta aurrezkia edo seme-alaben hezkuntzaren finantzaketa (Cohen & Nelson, 2011). Bestetik, “ProCredit” bankuak (2015) uste du finantza-hezkuntza tresna bat dela, zeinaren bidez pertsonak funtsezko balioak, ezagutzak, trebetasunak eta jokabideak eskuratzen baitituzte finantza-erabaki arduratsuak hartzeko. Horrek esan nahi du oinarrizko finantza-printzipioak aplikatu behar direla, eta ulertu behar dela adierazle makroekonomikoen aldaketek nola eragiten dioten beren ongizate ekonomikoari. Ildo beretik, Bansefi-k (2015) adierazten du finantza-hezkuntza trebetasunak eta jarrerak garatzean datzala, informazio argia ulertuz eta

¹ “Jump Start Coalition for Financial Literacy” irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Estatu Batuetan oinarritua, eta hainbat erakunde nazionalak osatzen dute. Helburu Nagusia ikasleen artean finantza-kontzeptuen irakaskuntza sustatzea da, eskolaurretik unibertsitatera. Koalizio horren bidez, gazteak beren bizitza osoan finantza-erabakiak hartzeko behar dituzten trebetasunez hornitzen dira.

baliabideak administratzeko eta planifikatzeko oinarrizko tresnak menderatuz. Horri esker, pertsonak erabaki ekonomiko indibidualak eta sozialak har ditzakete eguneroko bizitzan, eta, aldi berean, produktu eta zerbitzu finantzarioak erabil ditzakete beren bizi-kalitatea ziurtasunez hobetzeko. Azkenik, Lusardi eta Mitchell-ek (2011) definizio laburra eta zehatza ematen dute finantza-hezkuntzari buruz adieraziz oinarrizko finantza-kontzeptuen ezagutza eta kalkulu errazak egiteko gaitasuna dela.

Laburbilduz, definizio guztiak finantza-ezagutzak eskuratzearen, finantza-trebetasunak garatzearen eta erabaki informatuak hartzearen garrantzia nabarmentzen dute eta, argi geratzen da hezkuntza finantzarioaren ardatza pertsonak gaitzea dela beren baliabideak eraginkortasunez administratzeko eta aukerak nahiz finantza-arriskuak ulertzeko.

1go Taula. Finantza-hezkuntza kontzeptua definitzeko aldagaiak

Eragilea edo Erakundea	Urtea	Aldagaiak /Faktoreak
Jump \$tart Coalition	2007	- Segurtasun finantzarioako baliabideak
GAO	2011	- Erabaki informatuak - Ekintza eraginkorrak
Lusardi eta Mitchell	2011	- Finantza-kontzeptuen ezagutza - Kalkulu errazak
Bansefi	2015	- Trebetasunak eta jarrerak garatu - Erabaki ekonomiko indibidualak eta sozialak - Bizi-kalitatea hobetu
“ProCredit” bankua	2015	- Funtsezko balioak, ezagutzak, trebetasunak eta jokabideak - Finantza-printzipioak - Adierazle makroekonomikoen aldaketak
Espainiako Bankua	2022	- Ezagutza, jokabideak eta jarrerak - Finantza-erabaki egokiak - Finantza-ohitura osasungarriak - Arriskuak
ELGA	2023	- Erabaki informatuak - Arriskua eta finantza-aukerak - Ongizatea hobetu

Iturria: Norberak eginda

3.2.Finantza-hezkuntzaren sorrera eta bilakaera

XXI. mendea aurrera egin ahala, nazioarteko testuinguru sozioekonomikoa gero eta konplexuagoa bihurtu zen eta hainbat erakunde ekonomiko, nazioarteko erakunde, gobernu eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak gehiago inplikatu egin ziren finantza-hezkuntzan.

2008ko finantza-krisi globalak, 1929ko Depresio Handiaz geroztik krisirik suntsitzaileena kontsideratura, inflexio-puntua markatu zuen nazioarteko agendan. Krisi hori 2008ko urrian azaldu zen eta, neurri batean, merkaturatzen ziren finantza-produktuen konplexutasunak eragin zuen, hala nola, arrisku handiko hipotekek eta mailegu sindikalek. Arazo horren azpian, aseguru-konpainien, hipoteka-erakundeen eta inbertsio-bankuen finantza-ezegonkortasuna sartu zen, Estatu Batuetako *subprime* hipoteken krisiaren ondorioz. Krisia herrialde garatuetan sortu bazen ere, azkar hedatu zen maila globalean (Muccino, 2014).

Gertaera honen ondorioek argi eta garbi plazaratu zuten arazo larri bati aurre egin behar zitzaioela: biztanleriaren parte esanguratsua ez zuen finantza-ezagutzarik, eta inbertsioetan eta gastuetan erabaki informatuak hartzeko tresnak behar zirela. Inflexio puntua zalantza gabe, nazioartean finantza-hezkuntzaren garrantzia aitortzeko.

Krisia merkatu garatuetan hasi bazen ere, finantza-hezkuntza garrantzitsua bihurtu zen finantza-sektorea azkar hazten ari zen garapen bidean zeuden merkatuentzat. Beraz, zenbait herrialdek 2008ko krisiaren ondoren finantza-hezkuntzako politika publikoak ezartzea erabaki zuten, herritar guztiei zuzenduak. Horrela, herritarrak prestatuta egongo ziren etorkizuneko finantza-krisiei aurre egiteko (Muccino, 2014).


Finantza-hezkuntzako proiektuak hasi zirenetik bi hamarkadak betetzear daudela, egokia da proiektu horien aurrerabidea ebaluatzea. ELGA finantza-hezkuntza sustatzen eta hedatzen hasi zen lehenengo erakundea izan zen, eta herrialde eta erakunde multilateralak inplikatu zituen pixkanaka. Horren ondorioz, *International Network on Financial Education* (INFE) sortu zen, eta erakundeen ekimen ugari piztu ziren ekonomia garatu gehienetan (Vázquez, 2022).

Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala (CNMV) izan ziren ekimen hori onartu zuten aitzindariak Espainian. Erakunde horiek “*Finanza para todos*” bezalako programak garatzeko erantzukizuna hartu zuten bere gain, Finantza Hezkuntzako lehen Planak bultzatuta. Plan horrek hainbat ekintza eragin zituen, erakunde publiko eta pribatuen lankidetzarekin (Vázquez, 2022).

Finantza Aholkulari eta Planifikatzaileen Espainiako Elkarteak (EFPA) egindako azterlan batean, non Espainiako finantza-aholkularitzako 400 profesionalak baino gehiagok parte hartu zuten, honako hau adierazten da: “finantza-aholkularien %59k uste du hobetu egin dela espainiarren arteko finantza-hezkuntzaren maila azken urteetan”. Burtsako Ikasketen

Institutuko (IEB) irakaslearen arabera, finantza-hezkuntzako prestakuntza-proiektuaren barruan, aurrerapen nabarmena ikusi du belaunaldi gazteenetan, “prestatuago” iristen baitira eta finantza-gaietan oinarri sendoagoa baitute, ekonomia-arloko kontzeptu eta figura garrantzitsuak ulertuta (Dirigentes, 2023).

2. *Grafikoa. 1990etik finantza-hezkuntzako urteko argitalpen kopurua (artikuluak + berrikuspenak)*



Iturria: Bazán et al., 2021.

Lehen aipatu dugun moduan, produkzio zientifikoak errealitateko nondik norakoak jasotzen du. Grafiko honetan azter daiteke finantza-hezkuntzako ekoizpen zientifikoak nabarmen egin duela gora azken hamarkadan. Garrantzitsua da azpimarratzea 2011 eta 2014 arteko literatura-ekoizpena nabarmen gainditu dela 2015etik aurrera. Ziurrenik aurrerapen hau ikertzaileen arteko informazio-truke azkarra eta eraginkorra errazten duten komunikazio-teknologia berrien garapenarekin lotuta dago, ikerketa eta argitalpena areagotzen lagunduz (Bazán *et al.*, 2021).

Bi hamarkada hauetan, bilakaera bat ikusi da finantza-hezkuntzaren formalizazioan eta kontzeptualizazioan. Adituek finantza-hezkuntzaren oinarriari garrantzia ematen lagundu dute, eta jarduteko esparruak eta jokabide-kodeak ezarri dira. Aurrera egin da analisisetan, inkestetan eta azterlanetan, eta horiek guztiak lagungarri izan dira gaikuntza finantzarioaren mailak eta biztanleriaren pertzepzioak ezagutzeko (Vázquez, 2022). Hala ere, aurrerapenak egin diren arren, oraindik ere erronkak daude eta lan handia dago egiteko, finantza-hezkuntza sendoa funtsezkoa baita gizarteak etorkizunean aurrera egin dezan (Dirigentes, 2023).

Desoreka dago finantza-hezkuntzaren eskaintzaren eta eskariaren artean, hornitzaileen ikuspegia eskatzaileena baino handiagoa da eta oraindik ere zalantzak daude programen emaitzei eta benetako eraginari buruz. Gainera, egon daitezkeen arrakalei buruzko kezka sortu da, finantza-eragiketen gero eta konplexutasun handiagoren ondorioz. Horregatik, beharrezkoa da aipatutako gabeziei heltzea eta ikuspegi berriei buruz hausnartzea, finantza-hezkuntza orientatzeko, berritzeko eta egokitzeko, aldaketa azkarren eta eraldaketa bizien garai honetan, hezkuntzarik gabeko herrialdea etorkizuna ez duen herrialdea baita (Vázquez, 2022).

3.3.Finantza-hezkuntzaren eragile-taldeak

Badira munduan zehar finantza-hezkuntza sustatzeaz arduratzen diren erakunde batzuk. Aipatzekoak dira, besteak beste, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundea (ELGA), Munduko Bankua, Munduko Aurrezki Kutxen eta Txikizkako Bankuen Elkarteak (WSBI), Nazio-Batuak, Alemaniako aurrezki kutxak, Irlandako Lehia eta Kontsumitsaileak Babesteko Batzordea (CCPC), Espainiako Bankua, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, eta hainbat erakunde pribatu; hala nola, BBVA eta Santander bankuak. Ondoren, banan-banan azalduko ditugu.

ELGA 43 naziok osatzen dute, eta haren helburua herritarren bizi-kalitatea hobetzeko lankidetzak eta politika ekonomiko eta sozialen garapena sustatzea da. Foro global garrantzitsuenetako bat da eta, bertan, nazioartean berebizikoak diren gaiak aztertzen eta definitzen dira, hala nola, ekonomia, finantzak, ingurumena, hezkuntza, osasuna, etab. Finantza arloan, finantza-hezkuntza bere lanaren zutabe nagusi gisa sortu da. 2003. urtetik aurrera, erakunde honek proiektu integral bat diseinatu zuen gobernuek herrietan finantza-hezkuntza eskasak duen eragin negatiboaren inguruan zituzten kezkei aurre egiteko. Ondoren, 2006an G8ko Finantzetako Ministroek ELGaren lana babestu zuten, aitortuz garrantzitsua zela finantza-hezkuntza eta arlo horretako ezagutzak hobetzea, pertsonen finantza-produktuak eta -zerbitzuak kudeatzeko eta etorkizunean haien beharretara egokitzen diren erabakiak hartu ahal izateko (Muccino, 2014).

Aurretik aipatu dugun moduan, 2008ko krisiaren ondorioz, finantza-hezkuntzak bultzada handia jasan zuen, gizartea jabetu baitzen horrek zeukan garrantziaz. Premia horri erantzuteko, ELGak urte horretan bertan bere proiektua zabaldu zuen eta Finantza Hezkuntzako Nazioarteko Sarea sortu zen (INFE, ingelesezko siglak). Sare hau mundu mailan finantza-hezkuntzak duen muntari buruzko kontzientziazioa hobetzeko eta sustatzeko

jarri zen martxan (Muccino, 2014). Gaur egun, ELGak finantza-hezkuntzarekin lotutako datu-base bat du eta bertan gaia sustatzen duten erakundeei aukera ematen die haien izena emateko eta informazioa lortzeko. Bestalde, bertan agertzen diren datuak eta informazioa herrialdearen, entzuleen, gaien eta sustapen-sektorearen arabera sailkatzen dira.

2. Irudia. ELGaren datu basean erregistratuta dauden finantza-hezkuntzako programen kopurua



Iturria: ELGA, 2023

Munduko Bankua ere erakunde garrantzitsu bat da arlo honetan. Izan ere, hainbat ekintza abiarazi ditu herrialde desberdinetan finantza-egoera hobetzeko, finantza-inklusioa eta -hezkuntza sustatzeko. Adibidez, 2020ean, sektore publiko eta pribatuko 34 bazkiderekin lankidetzan, “Gizarteratze Finantzario Unibertsala 2020” programa diseinatu zuen. Proiektu horren helburua izan zen pertsonen finantza-zerbitzuak eskuratzeko aukera gehiago izatea aurrezpen pertsonalak ezarri ahal izateko, dirua bidaltzea eta jasotzea errazteko, etab. Hori lortzeko, jarraitu zuten estrategia hau izan zen: arau-esparru bat ezarri, finantza-zerbitzuen irismena handitu, finantza-hezkuntza sustatu, ekonomia-arloko trebetasunak eta jarrerak indartu eta ordainketa elektronikoak sustatu (Khan *et al.*, 2022). Bestetik, Munduko Aurrezki Kutxen eta Txikizkako Bankuen Elkarteak (WSBI), tokiko ekonomia bultzatzeko eta enpresa txiki eta partikularrei laguntzeko, finantza-hezkuntzako ekimenak gauzatzen ditu, aurrezkiak gizartean duen muntaz jabetzeko (WSBI, 2023). Era berean, gizartean zegoen finantza-hezkuntza eskasiaren ondorioz, Nazio Batuek Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH)


garatu zuten. Helburu hauen misioa “hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria, enplegu osoa eta produktiboa eta guztiontzako lan duina sustatzea 2030erako” izan zen (Khan *et al.*, 2022).

Europari dagokionez, Alemanian, adibidez, Aurrezki Kutxen Alemaniako Taldearen fundazioa dago, zeinen helburu nagusietako bat, gizartean finantza-hezkuntza sustatzea da eta, horretarako, haurrak eta gazteak diruaren maneiuz eta aurrezkiaren garrantziaz jabetzen ditu (*Sparkassenstiftung*, 2023). Bestalde, Irlandan, Lehia eta Kontsumitsailea Babesteko Batzordea (CCPC) finantza-hezkuntza gizarteko maila guztietan zabaltzeaz arduratzen da, zalantzak eta arazoak argitzeko sarbide erraza duen telefono-zenbaki bat eskainiz. Gainera, helduentzako eskola-programak eta mintegiak garatzen ditu, dirua erabiltzearekin lotutako trebetasunak emateko (*CCPC Business*, 2021).

Espainia mailan hainbat eragile azter daiteke. Alde batetik, “Finantza Hezkuntzako Plana” (FHE) estrategia nazionala dago, “*Finanza Para Todos*” programaren barruan. Estrategia hau 2008tik 2021era Espainiako Bankuak eta CNMVk bultzatu dute, bi eragile-hauk izan baitira bereziki finantza hezkuntza Espainian sustatzen aritu direnak (Carmona, 2023). Zehazki, Espainiako Bankuak 2021. Urtean “Finantza Gaitasunen Inkesta²” aurrera eramaten Espainiako biztanleriaren finantza ezagutzak eta jarrerak aztertzeko. Erakunde honek ere “*La Caja Fuerte*” izeneko joko hezitzailea garatu du, Lehen Hezkuntzako geletarako tresna lagungarri gisa diseinatua. Joko honek ikasleei esperientzia positiboa eta entretenigarria eskaintzen die eta, aldi berean, billeteei eta txanponei buruz modu desberdinean eta ludiko batean ikasten dute (*Banco de España*, 2023). Ildo beretik, Espainian badaude hainbat erakunde finantzario lokalak; hala nola, BBVA eta “*Banco Santander*” hainbat programa aurrera eramaten dutela hezkuntza finantzarioa areagotzeko biztanleriaren artean.

² Inkesta hau laugarren atalean, finantza-hezkuntzaren analisi praktikoan, sakonki aztertuko da.

3. Irudia. Finantza-hezkuntza sustatzeaz arduratzen diren erakunde garrantzitsuenak



Iturria: Norberak eginda

3.4. Finantza-hezkuntza sustatzeko programak eta ekintzak

Alabaina, nahiz eta finantza-gaitasunaren maila igotzeko kezka unibertsala eta orokorra izan, ezin da denbora eta leku guztietarako balioko duen estrategia bakar bat eskaini (Macías & López, 2015). Finantza-kudeaketaren oinarritzko printzipioak unibertsalak badira ere, ezagutzak, esperientzia eta finantza-portaerak aldakorrek dira gizabanakoen, ohituren eta herrialdeen artean. Beraz, finantza-hezkuntzako programak neurri handi batean hartzaileen profilararen arabera egokitu behar dira. Adibidez, gazteei zuzendutako finantza-hezkuntza programak gurasoekin finantza-erabakiak hartzera, aurrezkiaren baliora eta etorkizuneko plangintzara bidera daiteke; langile migratzaileek, berriz, orientazioa behar izan dezakete beren diru-sarrerak migrazioaren etapa desberdinetan administratzeko. Hala ere, askotariko gaiak eta ikuspegiak biltzen dituen aukera-eremu zabal horretan, oraindik asko dago aztertzeke eta ebaluatzeke zer finantza-hezkuntza mota behar duen talde bakoitzak eta zer metodologia diren eraginkorrenak ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta praktikak aldatzeko (Cohen & Nelson, 2011).

Gazteei dagokienez, haien HEF hobetzeko modurik eraginkorrena eskola-ikasketa planean finantza pertsonalei buruzko edukiak sartzea da. Ekimen hori gobernuak bultzatu behar du hezkuntza-erakundeetarantz bideratuz. Hartutako ikuspegia edozein dela ere, funtsezkoa da programa horiek herritarren finantza-arloko beharrak eta ezagutza-maila asetzeko diseinatuta egotea, ongizate ekonomikoa hobetzeko. Programa horiek lehen hezkuntzan hasi beharko lirarteke, bigarren hezkuntzan eta unibertsitatean jarraituz. Testuinguru horretan, nazioartean,

Kanada, Ameriketako Estatu Batuak eta Espainia bezalako herrialdeek derrigorrezko bihurtu dute HEF ia eskola maila guztietan, ikasketa planak eta alfabetatze finantzarioko estrategia nazionalak ezarriz eta koordinatuz. Espainian, adibidez, 2018an Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Finantza Hezkuntzako Plan bat jarri zen abian, Hezkuntza Ministerioak, Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak garatua. Plan honen helburua izan izen ikasleen ezagutza eta trebetasun ekonomikoak indartzea, funtsezko kontzeptuen garrantzia uler dezaten, hala nola aurrezkoa, aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak, besteak beste (Torres Bareto *et al.*, 2021).

Bestalde, gazteen hezkuntza finantzarioa neurtzeko oso garrantzitsua den azterlana Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa (PISA, ingelesezko sigletan, *Programme for International Student Assessment*) da. ELGAK 2000. urtean, ikasleen errendimenduari buruzko nazioarteko datu konparagarriak izateko beharra ikusita, programa honi ekin zion. PISA hiru urtez behingo inkesta da eta mundu osoko 15 urteko ikasleak ebaluatzen ditu, bizitza sozialean eta ekonomikoan bete-betean parte hartzeko funtsezko ezagutzak eta trebetasunak zer neurritan eskuratu dituzten zehazteko. Ikasleek ikasitakoa erreproduzitu dezaketen ebaluatzeaz gain, ezagutza horiek ingurune ezezagunetan aplikatzeko duten gaitasuna aztertu nahi du PISAk, ezagutza ez ezik ezagutza sormenez aplikatzea balioztatzen duen munduaren errealitatea islatuz. 2012. urtetik aurrera, PISA ebaluazioetan, finantza-kompetentziaren dimentsioa sartu zen, azken hamarkadetan, handitu egin baita herrialde garatuen eta garapen bidean dauden herrialdeen interesa herritarren finantza-gaitasunaren maila ezagutzeko, batez ere gazteen kasuan. Izan ere, 2018ko PISAko txostena finantza-eskumen horretan oinarritzen da (“PISA 2018 *Assessment and Analytical Framework*”, 2019).

Bestetik, helduen kasuan, ELGAK ere 2020. urtean Helduen Finantza Ezagutzei buruzko Nazioarteko Inkesta aurrera eramanez biztanleriaren finantza-gaitasunaren ebaluazioa egiteko. Inkesta honetan 26 herrialdek parte hartu zuten, ELGAKo 12 kide barne, Asiatik, Europatik eta Latinoamerikatik eratorriak. Ahalegin global hau lorpen esanguratsua da erakunde honentzat hasierako helburuetako bat alfabetatze finantzarioa neurtzeko eta alderatzeko metodo bat garatzea baitzen. Inkesta honen emaitzek finantza-kulturaren ikuspegi zabalagoa ematen dute, ezagutza ez ezik, finantza-portaera eta -jarrerak ere barnean hartuta. Gainera, biztanleriaren barruan talde espezifikoak identifikatu nahi dira, honako ezaugarri hauen arabera: generoa, adina, teknologia digitalaren erabilera eta aurrezpen-maila erresilientzia finantzarioaren adierazle gisa (OECD, 2020).

Mundu mailan egiten diren programen edo ekintzen beste adibide bat WSBIrena da. Erakunde honen arabera, finantza-hezkuntzako programen helburu nagusia finantza-inklusioko ziklo onuragarri bat sortzea da, bezeroen eta erabiltzaileen bizitzan eragin positiboa izango duena. Horregatik, erakundeak hainbat ekimen gauzatu ditu inklusioa eta finantza-hezkuntza sustatzeko. 2023an, lankidetzako eta ezagutza-trukeko ospakizun nabarmen batean, Cynthia Ikponmwosa andreak, WSBIko kidea, emakumeak sozioekonomikoki ahalduntzea izan zuen helburu. Aditu horrek hezkuntza eta inklusio finantzarioaren garrantzia azpimarratu zuen, Afrikako emakumeen ahalduntze sozial eta ekonomikoa indartzeko bultzatzaile gisa (Yeze, 2023).

Europa mailan, “*Eurobarometro*” izeneko inkestak Europako Parlamentuak, Europako Batzordeak eta Europar Batasuneko beste erakunde batzuek Europar Batasunarekin lotutako gaiei buruz duten pertzepzio publikoa erregulartasunez ebaluatzeko erabilitako ikerketa-metodo ofizial gisa ezarri dira, bai eta gai politiko eta sozialen aurrean dituzten jarrerak ere. Tresna honek kalitatezko eta garrantzizko datuak eskaintzen ditu, iritzi publikoko adituentzat, ikertzaileentzat, komunikabideentzat eta herritar guztientzat baliagarriak direnak. Hain zuzen ere, 2023an finantza-hezkuntzari buruzko eurobarometroa egin da (*Eurobarómetro*, 2023).

Europako beste herrialde batzuek ere hainbat ekimen jarraitu dituzte gaia sustatzeko. Alemaniako aurrezki-kutxek, *Sparkasse* deiturikoak, familien gaitasun ekonomikoak indartzen eta finantza-marjinak hobetzen dituzte, haur eta gazteentzako “*Sparkassen SchulService*” eta helduentzako “*Geld und Haushalt*” aholkularitza-zerbitzuen bidez. Honi esker, ekarpen aktiboa egiten diote Alemaniako finantza-hezkuntzari, herrialde bakoitzaren berezitasunetara eta biztanleriaren segmentu desberdinetara erabat egokitzen diren hezkuntza-programak eskainiz (*Sparkassenstiftung*, 2023). Aitzitik, Irlandari dagokionez, Lehia eta Kontsumitzailea Babesteko Batzordeak (CCPC) *Money Matters* finantza-hezkuntzako programa aurkezten du, bigarren hezkuntzako lehen hiru urteko umeentzako diseinatuta. Ikasgelan finantza pertsonalak irakasteak erronkak izan ditzake, baina programa hau zeregin horri eraginkortasunez ekiteko diseinatuta dago, ikaskuntza-esperientzia erakargarria eta interaktiboa eskainiz. Bizitzarako funtsezkoak diren finantza-trebetasunak garatzen laguntzen du, eta ikasleei beren finantzei buruzko erabaki informatuak hartzeko gaitasuna emango die, bai gaur egun, bai etorkizunean (CCPC, 2023). Programa hau jatorriz, ikasgelan emateko ikastaro gisa pentsatuta dago, baina malgutasuna eskaintzen du etxeko ingurunera egokitzeko. Izan ere, etxean irakastea erabakitzen bada, onuragarriak diren

jarduera eta baliabide ugari eskaintzen ditu, hala nola, *Parents' Hub*. Honek baliabide interaktibo ugari eskaintzen ditu, eta baliabide horiek ikasleei diruari eta finantzei buruz irakasteko erabil daitezke. Gainera, *Money Skills for Life* finantza pertsonalei buruzko ordubeteko doako aurkezpen bat ere badago, CCPCk egina. Ekintza hau enpresa baten enplegatuei bideratuta dago finantza-hezkuntza emateko helburuarekin (CCPC, 2022).

Azkenik, Espainian zentratuz, aurreko atalean aipatutako erakunde finantzarioak hezkuntza sustatzeko programak egin dituzte azken urteetan. Alde batetik, Santander bankuak egitasmoak gauzatzen ditu bere funtsezko merkatuetan, Europako, Ipar Amerikako eta Hego Amerikako eskualdeak barnean hartuta, finantza-osasuna sustatzeko asmoz. Haien helburua pertsona guztiengana iristea da, talde ahulenei arreta berezia eskainiz eta bizitza osoan finantza-hezkuntza sustatuz. 2022an, adibidez, 2,7 milioi pertsonen finantza-ezagutzak hobetzen lagundu zuten, kontzeptu ekonomikoak sinplifikatuz, ulergarriagoa izan zitezen (Santander, 2023). Bestetik, BBVA bankuak “Hezkuntzarako eta Finantza Gaitasunetarako Zentroa” ekimena abian jarri du finantza-ezagutzen eta -trebetasunen garrantzia sustatzeko asmoarekin. Izan ere, ekimen honetan portaera-aldaketan oinarritutako finantza-hezkuntzaren kontzeptua sustatzen da, ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta portaerak barne hartzen dituen, eta, batez ere, praktikaren bidezko ikaskuntzan oinarritutako ikuspegia hartzen du, une erabakigarrietan inplementatua (BBVA, 2017).

2. Taula. Finantza-hezkuntza sustatzeko programak eta ekintzak.

Eragilea	Ekintza
ELGA	PISA 2018
ELGA	Helduen Finantza Ezagutzei buruzko Nazioarteko Inkesta
WSBI Cynthia Ikponmwoza andreak, WSBIko kidea	Emakumeak sozioekonomikoki ahalduntzea
Europar Batasuna	Eurobarometroa 2023
Sparkasse (Alemaniako aurrezki-kutxak)	"Sparkassen SchulService" "Geld und Haushalt"
CCPC	Money Matters Parents' Hub Money Skills for Life
Espainiako bankua eta CNMV	Finantza Hezkuntzako Plana

Espainiako bankua	Finantza Gaitasunen Inkesta
Santander bankua	2,7 milioi pertsonen finantza-ezagutzak hobetzen lagundu
BBVA	“Hekuntzarako eta Finantza Gaitasunetarako Zentroa”

Iturria: Norberak eginda

Orokorrean, esan daiteke herrialde baten finantza-hezkuntza neurtzeko erabiltzen diren aldagai komun batzuek honako hauek barne hartzen dituztela: finantza-ezagutzak, portaera finantzarioa, teknologiaren erabilpena, generoa eta adina. Hala ere, beste hainbat adierazle edo aldagai daude herrialde bateko finantza hezkuntza maila neurtzeko: finantza-trebetasunak, portaera finantzarioa, finantza-hezkuntzako programetan parte hartzea, erregulazioa eta gobernu-politikak, etab (Communications, 2023).

3.5.Finantza-hezkuntzaren ondorioak

Finantza-hezkuntzaren mailak berebiziko garrantzia du kontsumitzaileek egiten dituzten finantza erabakietan. Gero eta ikerketa gehiagok ezartzen dute finantza-ezagutzaren eta ekonomiaren arloan erabaki pertsonal egokiagoak hartzearen arteko lotura. Gaiaren ulermen sendoa duten pertsonak gainzorpetzeko joera txikiagoa dute eta diru-zorro dibertsifikatuagoak dituzte, ondorioz, zenbat eta hezkuntza maila altuagoa izan, gero eta aberastasun handiagoa metatuko da (De Beckker et al., 2020). Ikuspegi global batetik, finantza-hezkuntza garrantzitsua da hainbat arrazoiengatik (Fernando, 2023):

- Itxuraz kaltegabeak diren finantza-erabakiek epe luzeko ondorioak izan ditzakete, galera ekonomikoak eragin ditzaketenak edo pertsonen bizi-planei eragin diezaieketenak. Honen aurrean, finantza-hezkuntzak gaitasuna ematen die pertsonen beren finantza pertsonalaren erabileran akatsik ez egiteko.
- Finantza-hezkuntzak larrialdi-egoerei aurre egiteko prestatzen ditu pertsonak. Irakatsitako finantza-kontzeptuek, hala nola aurrezkiak eta kontingentzietarako plangintzak, pertsonak ezusteko horretarako prestatzen dituzte. Ustekabeko enplegu-galerek edo gastuek finantza-eragina izaten badute ere, pertsona batek kolpea moteldu dezake bere finantza-ezagutzak aplikatzeko gai bada, larrialdi egoetarako prestatuta egonik.

- Finantza-hezkuntzak pertsoneri lagundu diezaieke beren helburuak lortzen. Hau da, aurrekontuak nola egiten diren eta dirua nola aurreztu hobeto ulertzean, pertsonen hasiera batean lorrezinak diruditen helburuak lortzeko itxaropenak eta norabidea ezartzen dituzten planak diseina ditzakete.
- Finantza-ezagutzek konfiantza ematen dute. Izan ere, finantzak sendo ulertuz, pertsonen konfiantza handiagoz ekin diezaiekete bizitzan erabakigarriak diren erabakiei, ezustekoak izateko joera txikiagoa dutela edo ustekabeko emaitzek kalte egiten dietela onartzen baitute.
- Azkenik, lanean zehar azaltzen den moduan, finantza-hezkuntza ezinbestekoa da finantza-inklusio handiagoa lortzeko. Orokorrean, finantza-industriak eskainitako produktuak eta zerbitzuak ulertzen hasten direnean, pertsonen seguruenik zerbitzu horiek erabiliko dituzte, hala nola aseguruak, banku-maileguak eta aurrezki-kontuak, dirua banku-sistematik kanpo mantendu beharrean (Bire *et al.*, 2019). Beraz, testuinguru horretan, funtsezkoa da baliabide horiek guztiek eraginkortasunez kudeatzeko beharrezkoak diren gaitasunak izatea (Torres Bareto *et al.*, 2021).

Hala ere, nahiz eta finantza-hezkuntzaren garrantzia onartuta egon gizartean, kontrako egoera, hau da, finantza-heziketa eza, fenomeno orokorra da mundu osoan, baita ekonomia aurreratuetan ere, eta ondorio esanguratsuak ditu (Mbukanma & Rena, 2022). ELGAK adierazi duenez, pertsona baten hezkuntza finantzarioaren maila dirua kudeatzeko, bere egoera ekonomikoari mesede egingo dioten finantza-produktuak hautatzeko eta epe labur zein luzerako plangintza egiteko gaitasunean islatzen da. Beraz, gizabanakoek ez badute jakintza finantzario nahikorik, finantza-erabakiak ez dira oso egokiak izango, edo nahi baino okerragoak izango lirateke. Eta hori arazo larriak sor dezake, hala nola gehiegizko zorpetzea (Ramakrishnan, 2012). Orduan, finantza-portaera ezegokiak ondorio txarrak ditu bai pertsonentzat, eta baita munduko ekonomiarentzat ere, AEBtako hipoteka-burbuila krisian ikusi zen bezala (Goyal & Kumar, 2021).

Finantza-ezagutzen maila txikiak ohikoak dira helduetan eta mundu osoko haurretan, batez ere talde behartsuetan. Finantza-alfabetismoaren ondorio negatiboak mundu, nazio eta erakunde mailan zabaltzen dira, eta hainbat mailatan eragiten die pertsoneri. Finantza-erabaki egokiak hartzeko gaitasunik ez izateak, batez ere ziurgabetasun ekonomikoko aldietan, enplegua galtzea, diru-sarrerak azkar murriztea eta bestelako ezbehar arruntak eragin ditzake (Mbukanma & Rena, 2022).

Herrialde azpigaratuak aztertzen baditugu, esan daiteke bertan analfabetismo finantzarioaren arazoa agerikoagoa dela (Leiva & Vergara, 2019). Nazio horietan, biztanleriak finantza-sistemetan konfiantzarik eta ezagutzarik ez izatea oztopo garrantzitsua da, eta hezkuntzaren bidez soilik gaindi daiteke. Adibidez, Latinoamerikan eta Kariben, biztanleen %9,6k baino ez diete maileguak eskatzen finantza-erakundeei, eta aurrezki-tasa pribatuak %14,7koak dira. Zifra horiek eragin zuzena dute dinamika ekonomikoan, produktibitatea geldiaraziz eta hazkundera oztopatuz. Gainera, PISAren datuen arabera, egoera ahulean dauden ikasleek ere finantza-ezagutza gutxiago dituzte. 15 urteko nerabeen artean finantza-ezagutzen mailan alde nabarmenak daudenez, guztiek ez dituzte gaitasun horiek garatzeko aukera berdinak. Desberdintasun sozioekonomikoak txikitatik aztertzen ez badira, litekeena da alfabetatze finantzarioaren arrakalak zabaltzea ikasle horiek heldutasunera iritsi ahala. Beraz, funtsezkoa da emaitza txarragoak eta egoera kaskarragoak dituzten ikasleei laguntza ematea, finantza-ingurune gero eta digitalizatuago batean konfiantzaz molda daitezen bermatuz, independentzia irabazi ahala (Elena, 2023).

Egoera honi aurre egiteko, finantza-hezkuntzak funtsezko zeregina betetzen du, biztanleriaren finantza-trebetasunak eta -ezagutzak indartzen baititu (Elena, 2023). Baztertuei zuzendutako finantza-hezkuntzako programak estrategia eraginkorrak izan daitezke finantza-erakundeek finantza-bazterkeriari buruz duten ezagutza hobetzeko. Azken hartzaileei buruzko informazioa jasotzean eta entitate, kolektibo edo erakundeekin lankidetzan aritzean, entitate horiek hobeto uler dezakete baztertutako biztanleriaren sektorea (Leiva & Vergara, 2019). Beraz, ingurune horietan finantza-hezkuntzari emandako babesak giza kapitala garatzeko epe luzeko inbertsio erabakigarritzat hartu behar da, eta eremu publikoan, pribatuan eta zibilean funtsezko eragileen babesak jaso behar du. Horrela, hazkunde iraunkorrerako eta gizartean ekitate handiagoa lortzeko oinarriak ezartzen dira (Elena, 2023).

4. FINANTZA-HEZKUNTZAREN ANALISI PRAKTIKOA

Aurreko atalean plazaratu dugun moduan, finantza-hezkuntza gaurkotasun osokoa da. Urteak dira kontzeptu hau aztertzen eta zehazten ari direla adituak. Eta ez bakarrik arlo teorikoan, finantza-hezkuntzaren sustapena praktikara eramateko ekimen anitz jarri dira martxan. Izan ere, lehen laburtu ditugu eragile eta ekintza nagusiei gehitu al dizkiogu egunerokotasunean sailkatu daitezkeen kanpainak, eskoletan egindako jarduerak, gobernuz kanpoko erakundeek (GKE) eskainitako prestakuntza-tailerrak, lan-inguruneko programak, etab. Neurri handi

batean programa horien helburua gizabanakoak ahalduentzea izan da, finantza-arloan dituzten aukerak ebaluatu ahal izan ditzaten eta erabaki egokiak har ditzaten, betiere bere interesen arabera (Muccino, 2014).

Alfabetatze finantzarioa neurtzea lan konplexua da eta, gainera, arlo honetako neurketa-azterketak ez omen dira guztiz zehatzak izaten. Termino honek hainbat adierazle desberdin biltzen ditu eta adierazle horiek aldatu egiten dira eragileen arabera, aurreko atalean erakutsi dugun bezala. Azterlan gehienak biztanleriak finantza-produktuetarako duen sarbidea neurtzera bideratuta daude; aldiz, gutxi batzuk zentratzen dira finantza-kontzeptuen ezagutza maila neurtzen (Muccino, 2014).

Gaur egungo egoerak gai horrekin lotutako proposamen-ugari daudela islatzen du. Hazten eta birmoldatzen ari den fenomeno guztiakin gertatzen den moduan, finantza-hezkuntzak ere berebiziko galderak sortzen ditu: finantza-hezkuntzako programak gizabanakoen finantza-ezagutza ezarekin zuzenean lotuta al daude? Nola ebalua daiteke eremu horretan biztanleriak duen ezagutza-maila? Ba al dago benetako defizit biztanleriaren finantza-ezagutzan? Eztabaida hauei erantzuna ematea ez da erraza. Hurrengo analisiaren bidez horretan zentratuko gara. Horretarako, Espainian dagoen finantza-hezkuntza mailaren nondik norakoak aztertuko dugu, gaur egungo egoerari begiratuz eta azkenengo hamarkadan egon diren aldaketak berrikusiz. Ildo horretan lortuko ditugun ondorioak argia eman diezaiokete finantza-hezkuntzaren fenomenoari. Adibidez, Espainia mailan abian jarritako programak benetan erabilgarriak izan diren edota neurgailu bezala erabiltzen diren faktoreak adierazgarriak diren hausnartzea.

Espainiako Bankuak 2021ean egindako Finantza Gaitasunen Inkesta (FGI) aintzakotzat hartzen dugu. Bertan, Espainiako egoeraren bilakaera aztertzen da, hain zuzen ere, 2016 urtetik egon diren emaitza eta aldaketa guztiak. Inkesta hau Estatistika Plan Nazionalaren esparruan sartuta dago eta Espainiako egoerara egokitzen du Finantza Hezkuntzako Nazioarteko sarea osatzen duten hogeita hamar nazio inguruko gobernuetako eta banku zentraletako ordezkariak diseinatutako galdetegia, ELGAREN koordinaziopean (Gavilán, 2023).

Inkestaren helburua da biztanleriaren gaitasun finantzarioen maila neurtzea, nazioartean konparatzeko moduan. Horretarako inkesta hainbat ataletan banatzen da eta atal bakoitza aztertzen da: oinarritzko finantza kontzeptuen ulermena, baita aurrezkiarekin, aseguruarekin eta zorpetzearekin lotutako finantza-tresnen ezagutza, edukitza, eskurapen eta erabilera maila

ere. Bertan parte hartzen duten gizabanakoek 18 eta 79 urteko heldu espainiarrak dira. Datuek biztanleria osoari eta hainbat biztanleria-talde desberdinei buruzko informazioa ematen dute, honako aldagai hauen arabera: adina, generoa, hezkuntza-maila, lan-egoera, familia-egitura, etxeko diru-sarrerak, bizi den autonomia-erkidegoa, jaioterria eta ondasun higiezinaren jabetza (Gavilán, 2023).

Inkesta hau bigarren edizioa da, lehenengoa 2016an egin zen, non lehenengo fase horretan ere ELGAK parte hartu zuen. Galdetegia lehenengo edizioarekin alderatzeko aukera ematen du eredu berdina jarraitzen duelako, baina zenbait doikuntza ere egin dira.

Datuak biltzeko aldia 2021eko azaroaren 2tik 2022ko uztailaren 23ra artekoa izan zen, eta aurrez aurreko edo telefono bidezko elkarrizketak egin ziren. Lagina Estatistikako Institutu Nazionalak eman zuen eta 21.000 pertsona osatu zuten, nazio-mailan eta autonomia-erkidego bakoitzean ordezkaritza bermatuz. Orokorrean, 7.764 baliozko elkarrizketa lortu ziren.

3.Taula. Inkestaren ezaugarriak. Laburpen taula

IZENBURUA	Finantza Gaitasunen buruzko Inkesta (FGI)
NOIZ	2021/11/02 – 2022/07/23
NORK	Espainiako Bankua
LAGINA	18 eta 79 urte arteko helduak Guztira: 21.000 inkesta Baliozko inkestak: 7.764
ALDAGAI DEMOGRAFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Adina • Generoa • Hezkuntza-maila • Autonomia-erkidegoa <ul style="list-style-type: none"> • Lan-egoera • Familia-egitura
ATALAK	<ul style="list-style-type: none"> • Finantza-kontzeptuen ulermena • Finantza-produktuen ulermena <ul style="list-style-type: none"> • Produktuen edukitza • Produktuen eskurapena • Produktuen erabilera
HERRIALDEA	Espainia
HELBURUA	Biztanleriaren gaitasun finantzarioen maila neurtzea, nazioartean konparatzeko moduan.
ESTEKA	https://app.bde.es/efs_ecf/home?lang=ES

Iturria: Norberak eginda

Behin inkesta deskribatuta eta helburua finkatuta, azterlanaren emaitza nagusiak aztertuko dira eta baita 2016ko emaitzekin konparatu ere. Horretarako inkestak berak duen egitura jarraituko dugu eta, aurretik aipatu dugun moduan, inkestatuen talde desberdinen emaitzak aztertuko dira:

4.Irudia. Laginaren aldagai nagusiak.




Iturria: Norberak egina

4.1. Ezagutza Finantzarioak

Lehenik eta behin, ezagutza finantzarioak aztertuko dira. Inflazioa, interes konposatua eta arriskuaren dibertsifikazio kontzeptuak ulertzen diren galdetzen da inkestan. Esan beharra dago, galdera horiek nazioarteko hainbat azterketetan erabiliak izan direla.

Alde batetik, **inflazioari** buruzko galderari erantzun egokia emateko, funtsezkoa da ulertzea zenbat eta prezio handiagoak izan, orduan eta txikiagoa dela diru-kopuru bat erosteko gaitasuna.


3.Grafikoa. Inflazioari buruzko galderaren erantzun zuzenen %



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

Bigarrenik, **interes konposatuari** buruzko galderari erantzun zehatza emateko, ulertu behar da denboraldi batez aurreztutako zenbateko baten garapena lehenengo urtean hasierako zenbatekoari aplikatutako urteko interes-tasaren eta une horretatik aurrera metatutako interesen araberakoa dela.


4.Grafikoa. *Interes konposatuari buruzko galderaren erantzun zuzenen %*



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

Azkenik, **arrikuaren dibertsifikazioari** buruzko galderari ondo erantzuteko ulertu behar da errenta aldakorreko inbertsioari lotutako arriskua murriztu egiten dela akzio-aniztasuna eskuratzen denean, mota bakarrera mugatu beharrean.

5.Grafikoa. *Arrikuaren dibertsifikazioari buruzko galderaren erantzun zuzenen %*



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021


Hirugarren, laugarren eta bosgarren grafikoetan azter daitekeen moduan, 2021eko edizio honetan, parte hartzaileen %65ek zuzen erantzun diote inflazioari buruzko galderari, %41ek interes konposatuari buruzko galderari eta %52k arriskuaren dibertsifikazioari buruzko galderari.

2016. urteko emaitzekin konparatuz, inflazioa eta arriskuaren dibertsifikazioaren kontzeptuen ulermena hobetu egin da; aldiz, interes konposatua kontzeptuaren ulermena behera egin du. Orokorrean, hiru galderari behar bezala erantzun dieten parte-hartzaileen ehuneko puntu bat igo da 2016arekin alderatuta, %18tik %19ra. Hobekuntza hori batez beste parte-hartzaile gazteenen eta adinekoen artean kontzentratzen dela omen da. Hala ere, 2021ko inkestan hainbat desberdintasun azaldu dira biztanleria-taldearen artean: genero, adina, hezkuntza maila eta autonomia-erkidegoaren arabera.

4.1.1. Generoaren arabera

Alde batetik, generoaren ikuspegitik, gizonen artean erantzun zuzenen batz besteko ehunekoa %58 izan zen, emakumeen batz bestekoa (%48) baino 10 puntu portzentual handiagoa. Izan ere, esan beharra dago finantza ezagutzetan dagoen genero arrakala ez dela aldatu 2016. urtearekin alderatuta, bietan 10 puntuko desberdintasuna baitago.

6. Grafikoa. Erantzun zuzenen alderaketa generoaren ikuspegitik.




Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

4.1.2. Adinaren arabera

Adinaren araberako taldeak aztertuz gero, 7. grafikoan ikus daiteke adin-taldearen araberako erantzun zuzenen egunekoaren banaketak alderantzizko U forma erakusten duela. Zehazki,

34 urtetik beherako pertsonen kasuan %52tik, 45-64 urteko pertsonen kasuan %56ra igotzen da eta, azkenik, behera egiten du 65 urtetik gorako pertsonen kasuan, %48ra jaitsiz. Orokorrean, 2016arekin alderatuta, ehuneko 6 puntu inguruko igoerak ikusi dira erantzun zuzenen indizean 34 urtetik beherako pertsonen artean, eta ehuneko 3 puntu 65 urtetik gorako pertsonen artean. Gainerako adin taldeetan, berriz, hazkundeak txikiagoak izan dira.

7.Grafikoa: Erantzun zuzenen alderaketa adin taldearen arabera




Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

4.1.3. Hezkuntza-mailaren arabera

Hezkuntza maila handitu ahala, erantzun zuzenen ehunekoa ere handitzen dela, hau da, lotura zuzena dutela. Izan ere, batxilergoaren azpiko hezkuntza duten pertsonen galdera zuzenen %43 osatzen dute; batxilergo dutenek, berriz, %55; eta unibertsitate-hezkuntza edo baliokidea dutenek %64. Positiboki, 2016ko erantzunekin konparatuz, esan daiteke hezkuntza-maila guztietan erantzun zuzenen portzentaiak handitu direla.

8. Grafikoa. Erantzun zuzenen alderaketa hezkuntza-mailaren arabera.



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

4.1.4. Autonomia-erkidegoaren arabera


Kasu honetan hainbat alde nabarmendu dira. 2021. urtean, Andaluzia, Balear Uharteak, Gaztela-Mantxa eta Extremadurak erregistratu duten erantzun zuzenen ehunekoak txikiak izan dira (%44 eta %49 artean); berriz, Aragoi, Madril eta Euskadik errendimendu nabarmenagoa lortu dute (%58 inguru).

4.2. Produktu Finantzarioen Ezagutza

FGIan, ezagutza finantzarioen azterketa aparteaz, banakoek hainbat finantza-produkturi buruz entzun duten, produktuak badituzten edo azken bi urteetan produkturen bat erosi duten ere neurtzen da.

Produktu finantzario desberdinei buruzko ezagutzari buruz, aztertu da parte hartzaileen %95 eta %98 artean bizi-aseguruak, mediku-aseguruak, kreditu-txartelak, hipotekak eta mailegu pertsonalak ezagutzen dituztela. Aitzitik, aurrezki-kontuak eta errenta finkoa dira gutxien ezagutzen diren produktuak (%60 eta %72). Gainera, 9. grafikoan ikus daitekeen moduan, azpimarratzekoa da ere 2016tik hona, produktu horiei buruzko ezagutzak nabarmen egin duela behera, hurrenez hurren 13 eta 6 puntu portzentualetan jaitsi baitira.

9. Grafikoa. Aurrezki-kontuei eta errenta finkoari buruz entzun duten biztanleriaren %



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

Aurrezteko metodoen ulermena desberdina da pertsonen adinaren arabera. Oro har, 18 eta 34 urte bitarteko biztanleriak eta 65 urtetik gorakoek gutxiago ezagutzen dituzte kontzeptu horiek. Era berean, hezkuntza-mailaren arabera ere, desberdintasunak daude finantza-produktuei buruzko ezagutza-mailan.


4.3. Produktu Finantzarioen Edukitza

Finantza produktuen edukitzeari buruz honako datu hauek atera dira: Espainiako herritarren %98k kontu korrante bat du; %41k aurrezki-produkturen bat du, eta %42k zor-tresnaren bat. Bestalde, errenta finkoko aktiboak (%1) eta kriptomonetak (%5) gutxiengoa dira, baina nabarmentzekoa da gazteenen %12k kriptomoneten jabe direla aitortzen dutela.

4.3.1. Aurrezteko produktuak


Aurrezteko produktuen jabetza proportzionalki handitzen da adinaren, etxeko diru-sarreraren eta hezkuntza-mailaren arabera. 10. Grafikoan ikus daitekeenez, 2021. urtean batxilergoa baino beheragoko hezkuntza duten pertsonen %27k aurrezki-kontu bat du, eta, berriz, unibertsitate-hezkuntza edo baliokidea dutenen artean ehuneko hori %58ra igotzen da. Horrez gain, 11. grafikoan aztertzen da 55 eta 64 urte bitarteko helduek aurrezteko baliabideak izateko joera handiena dutela (%49), eta, aldiz, protzentaia hori behera egiten du 65 urte baino gehiagoko pertsonetan (%41).

10.Grafikoa. Aurrezteko produktuak dituzten pertsonen ehunekoa, hezkuntza-mailaren arabera



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

11.Grafikoa. Aurrezteko produktuak dituzten pertsonen ehunekoa, adinaren arabera




Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

Datu hauek 2016ko datuekin konparatzen baditugu, hainbat ondorio atera ahal dira. Aurrezteko produktuak izateak nabarmen egin du behera 35 eta 65 urte bitarteko adin-tartean. Aldiz, kreditu-txartelen edukitzak gora egin du, %56tik %63ra. Igoera hau batez ere batxilergotik beherako hezkuntzan (ehuneko 11 puntuko igoera), diru-sarrera txikiak dituzten etxeetan (ehuneko 8 puntuko igoera), erretiratueta (ehuneko 11 puntuko igoera) eta 65 urtetik gorako pertsonetan (ehuneko 13 puntuko igoera) biltzen da.

4.3.2. Zorrak

Biztanleriaren %42k zorren bat du, hain zuzen ere, %29k hipoteka eta %21ek mailegu pertsonala. Zorrak ohikoagoak dira 35-44 urteko pertsonen taldean, %62ra iristen baitira; baina, aldiz, ez da hain ohikoa 34 urtetik beheragoko gizabanakoetan (%24) eta 65 urtetik gorakoetan (%22).

12. Grafikoa. Zor-produktuak dituzten pertsonen ehunekoa, adinaren arabera



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

Nabarmentzekoa da ere, genero-desberdintasunei dagokienez, gizonen ehuneko handiago batek (%44) hipoteka edo maileguren bat duela, emakumeekin konparatuz (%40).

2016. urtearekin alderatuta, ehuneko puntu batean igo da zorpetutako pertsonen ehunekoa. Hala ere, portaera hori desberdina da finantza-produktu motaren arabera. Hipoteken edukitzan ehuneko 3 puntu inguruko beherakada erregistratu da, eta mailegu pertsonalen edukitzan, berriz, ehuneko 3 puntuko gorakada.

4.4. Finantza Produktuen Eskurapena


2021ean, Espainiako biztanleriaren %47k finantza-produkturen bat eskuratu zuen inkestaren aurreko bi urteetan. Talde horren barruan %20k aurrezki produkturen bat erosi zuen, eta %17k kreditu-txartelaren bat. Zorrei dagokienez, aztertutako biztanleriaren %16k mailegu pertsonala eskuratu zuen aldi horretan.

Finantza-produktuak lortzeari dagokionez, agerian geratzen da biztanleria-talde desberdinen artean joera diferenteak daudela eta jarraian aztertuko ditugu.

4.4.1. Adinaren arabera


13. grafikoan ikus daitekeen moduan, 2021an aurrezki-produktuen eskurapenak behera egin du adinarekin, eta gazteenen artean %23 izatetik 65 urtetik gorakoen artean %13 izatera igaro da. Zor-produktuen erosketak, aldiz, maximoa lortzen du 35-34 urteko pertsonen taldean %30era iritsiz, eta gero %8ra jaisten da 65 urtetik gorako taldeetan (ikus 14. grafikoa).

13. Grafikoa. Aurrezki-produkturen bat eskuratu duten pertsonen ehunekoa, adin-taldearen arabera



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

14. Grafikoa. Zor-produkturen bat eskuratu duten pertsonen ehunekoa, adin-taldearen arabera




Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

4.4.2. HEZKUNTZA-MAILAREN arabera


Azkenengo urteetan finantza-produktuak bereganatu dituzten pertsonen ehunekoaren igoerak lotura du hezkuntza-mailarekin, eta joera hori finantza-produktuen edukitza aztertzean ikusitakoaren antzekoa da (4.3. atala). Alde batetik, batxilergoa baino beheragoko hezkuntza duten pertsonen %9k aurrezteko produkturen bat eskuratu du, eta ehuneko hori %32ra igotzen da unibertsitate-hezkuntza edo baliokidea dutenen artean.

15. Grafikoa. Aurrezki-produkturen bat eskuratu duten pertsonen ehunekoa, hezkuntza-mailaren arabera



Bestetik, zorrei dagokienez, 16. grafikoan aztertzen den moduan, aldeak ez dira hain handiak. Batxilergoa baino hezkuntza txikiagoa duten pertsonen %16k eta unibertsitate-hezkuntza edo baliokidea dutenen %23k mailegu pertsonal bat edo hipoteka bat bereganatu dute azken bi urteetan.

16. Grafikoa. Zor-produkturen bat eskuratu duten pertsonen ehunekoa, hezkuntza-mailaren arabera



Finantza produktuen eskurapenaren analisisia amaitzeko, aipatu beharra dago 2016. urtearekin alderatuta, zor-produktuen eskurapenak ehuneko 3 puntu inguruko igoera izan duela. Azpimarratu behar da hazkunde hori nabarmenagoa dela 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen artean, produktu horiek lortzeari dagokionez ehuneko 8 puntuko igoera izan baitute (%22tik %30era).

4.5. Finantza Produktuen Erabilera


Finantza-produktuen erabilerari buruz ikertu da 2021ean biztanleriaren %70 aurrezten egon zela aurreko 12 hilabetetan zehar. 2016arekin alderatuz, protzentaia hau ehuneko 9 puntutan handitu da (%61etik %70ra) eta posible da igoera hau COVID-19 pandemiarekin zerikusia izatea.

Aurreztea erabaki dutenen artean, gehien erabilitako modalitatea kontu korronteetan funtsak metatzea izan da (%68), eta, ondoren, finantza-sistematik kanpo dirua aurreztea (%40).

Metodo horiek ere nagusi ziren 2016an, baina une horretan, kontu korranteetan aurrezten zuten pertsonen ehunekoak %5 txikiagoa zen (%63), eta eskudirutan aurrezten zutenena, berriz, ehuneko 2 puntu txikiagoa (%38).

Aurrezten aritu den biztanleriaren proportzioak behera egiten du adinak aurrera egin ahala. Adibidez, 17. grafikoa ikus daitekeenez, 18 eta 34 urte arteko gazteen %87k aurreztu du azken urtean, eta 65 eta 79 urte arteko helduen erdiak bakarrik hartu du ekimen hori.


17. Grafikoa. Azken hamabi hilabetetan aurrezten egon den biztanleriaren ehunekoa, adinaren arabera.



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

Aitzitik, aurrezten aritu direnen ehunekoak gora egiten du hezkuntza-mailaren arabera. Izan ere, batxilergoa baino beheragoko hezkuntza dutenen ia erdiak (%54) aurreztu egin du, eta unibertsitateko ikasketak edo baliokideak dituztenen artean, berriz, %85era igotzen da (ikusi 18. grafikoa).

18. Grafikoa. Azken hamabi hilabetetan aurrezten egon den biztanleriaren ehunekoa, hezkuntza-mailaren arabera.




Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

Bi grafikoetan aztertu daitezkeen moduan, 2016. urtearekin alderatuta, ehuneko 9 puntuko igoera eman da aurreztu duten pertsonen kopuruan. Gehikuntza hori 18 eta 54 urte bitartekoetan kontzentratzen da, hain zuzen ere, aurrezten aritu direnen ehuneko 10 puntu baino gehiago igo da eta baita batxilergoko titulua edo txikiagoa dutenetan (ehuneko 10 puntu igo da) ere.

4.6. Diru-Sarreraren gaintik dauden gastuak eta horien finantzaketa

Biztanleriaren finantza-gaitasunak ere gastua finantzatzeko metodoetan islatzen dira, diru-sarrerak gaintitzen dituenean. 2021ean, biztanleriaren %25 egoera hau duten etxeetan bizi da eta ehuneko hori nabarmenagoa da baliabide mugatuak dituztenen artean, hala nola batxilergoa baino hezkuntza-maila txikiagoa dutenen artean (%32).


19. Grafikoa. Diru-sarrerak baino gastu handiagoak izan dituzten pertsonen ehunekoak.



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea, 20. grafikoan ikusten den bezala, beren diru-sarreraren gaineko dituzten pertsonen ehunekoak ez duela aldaketa handirik erakusten adinaren arabera, nahiz eta %29ra iristen den 45-55 urteko pertsonen kasuan.

20. Grafikoa. Diru-sarrerak baino gastu handiagoak izan dituzten pertsonen ehunekoak, adinaren arabera.



Iturria: Finantza Gaitasunen buruzko inkesta 2016 eta 2021

2016ko datuekin alderatuta, egoera hau duten pertsonen ehunekoak 3 puntu portzentualetan jaitsi da (%28tik %25era) eta beherakada nabarmena 34 urtetik beherako pertsonen artean gertatu da; hain zuzen ere, ehuneko 6 puntuko murrizpena.

Behin inkestaren datuak arakatu ondoren, hurrengo atalean inkestatik ateratako ondorio nagusiak plazaratuko dira.

5. ONDORIAK

Lan honen helburu nagusia 2016-2021 aldirako Espainiako finantza-hezkuntza mailaren bilakaera aztertzea izan da. Horretarako, laugarren puntuan aztertu daitekeen moduan, Espainiako bankuak 2021ean egindako FGI ikertu da. Bertan hainbat emaitza atera dira hainbat atalei buruz, hala nola, finantza-kontzeptuen eta -produktuen ulermena, produktuen eskurapena, edukitza eta erabilera. Gainera, emaitzak hainbat aldagai demografikoen arabera biztanleria-talde desberdinei buruzkoak dira, beraz hainbat ondorio ateratzeko aukera izan dut.

Generoaren ikuspegitik, ez da aurrerapenik lortu 2016 urtetik hona, genero-arrakala finantza-ezagutzetan berdin mantendu baita. Geldialdi honek azpimarratzen du premia dela eremu espezifikoko honetan dauden genero-desberdintasunei sakonago heltzea eta aztertzea. Izan ere, benetako aurrerapena lortzeko, neurri zehatzak eta eraginkorrak hartu behar dira ezberdintasun horiek aldatzeko, aukera-berdintasuna eta pertsona guztientzako finantza-hezkuntzarako sarbide ekitatiboa sustatuz, generoa edozein dela ere.

Adina faktore erabakigarria da finantza-kontzeptuak ulertzeko; izan ere, bizitzan zehar bizitako gertakizunek eta esperientziek ezinbesteko zeregina dute dirua ikusteko moduan, inbertitzeko moduan edo gure finantzak planifikatzeko moduan. Ideia horrek nabarmentzen du garrantzitsua dela finantza-hezkuntzaren ikuspegietan dauden belaunaldi-desberdintasunak kontuan hartzea eta horietara egokitzea. Horretarako, hezkuntza-estrategia eta -programa malguak eta inklusiboak diseinatu beharko lirateke, bizitzako etapa guztiak kontuan hartzen dituztenak eta bizi izandako esperientzien garrantzia onartzen dutenak.

Hezkuntza mailaren arabera eginiko azterketak agerian uzten du korrelazio argia dagoela hezkuntza-mailaren eta finantza-ezagutzei buruzko erantzun zuzenen ehunekoen artean. Izan ere, hezkuntza maila handitu ahala, finantza-kontzeptuak ulertzeko eta aplikatzeko gaitasuna ere handitzen da. Beraz, maila guztietan, oinarrizko mailetatik hasita maila aurreratuetaraino, hezkuntza garatzea eta indartzea ezinbestekoa bihurtzen da. Finantza-gaiak hezkuntza-programetan eraginkortasunez txertatzean, erabaki informatuak hartzeko eta beren finantza-baliabideak efikaziaz kudeatzeko beharrezkoak diren tresnak emango zaizkie. Ondorioz,

ikuspegi progresibo honek, hezkuntza-arrakalak ixten laguntzeaz gain, egonkortasun ekonomikoa eta gizarte osoaren ekitatea indartzen ere lagunduko du.

Ildo horretatik jarraituz, inkestaren emaitzek agerian uzten dute finantza-produktuen ezagutzan aldaketa nabarmenak daudela adinaren eta hezkuntza-mailaren arabera. Ikertu da gutxien ezagutzen diren produktuak aurrezki-kontua eta errenta finkoa direla eta, gainera, haien ezagutza-mailak behera egin du 2016 urtetik hona. Egoera honen aurrean, premiazkoa da ezagutza hutsune horiei helduko dieten hezkuntza-estrategia espezifikokoak garatzea, gutxien ezagutzen diren finantza-produktu horiei buruzko informazioa lehenetsiz. Estrategia horiek, alde batetik, hezkuntza-maila eta adin talde desberdinetara egokitu behar dira, gizartean finantza-hezkuntza maila handiagoa sustatzeko eta, bestetik, bermatu behar dute pertsonak ondo informatuta daudela beren finantzekin zerikusia duten erabakiak hartzen duten momentuan.

Ezagutza arrakala hau konpontzen ez bada, ondorio negatiboak eta esanguratsuak ekar ditzake gizabanakoen etorkizunean. Finantza-produktuen ezagutzarik eta ulermenik ezak pertsonak beren helburuak lortzeko duten gaitasuna muga lezake. Izan ere, hainbat produkturi buruzko erabaki informatuak hartzeko beharrezko ezagutza faltako litzaieke. Horrek arazoak ekar litzake: baliteke pertsonak ez jakitea zer aukera dituzten eta, beraz, erabaki ez hain onak har ditzakete, epe luzera beren egoera ekonomikoari kalte egingo diotenak.

Bestetik, finantza-produktuen eskurapenari helduz, gehien bereganatzen den produktua kontu korronea izatea erakusten du, oro har, finantza-aukera tradizionalak lehenesten direla. Beste produktuen edukitza mugatua izateak, hala nola kriptomonetena, produktu berritzaileagoekiko nolabaiteko abertsioa edo erresistentzia iradokitzen du. Horrek finantza-produktu berriagoak eskuratzea eragozten duten oztopoak ulertzeko eta aurrera eramateko beharra azpimarratzen du. Beraz, produktuen dibertsifikazioa sustatzeko ezinbestekoa izango da produktu horiei buruzko hezkuntza eta kontzientzia handiagoa bultzatzea, haien onurak nabarmenduz eta kontsumitzaileen artean egon daitezkeen kezkek edo gaizki-ulertuak arinduz.

Puntu honekin amaitzeko, ezinbestekoa da bigarren puntuan egin den finantza-inklusioren azterketaren ondorioak ere ateratzea; izan ere, puntu horretan kontzeptu honen bilakaera aztertu da *Global Findex* erakundeak 2021ean egindako azterlanen bidez.

Garapen bidean dauden herrialdeetan banku kontuen eskurapena nabarmen handitu da eta hau, batez ere, digitalizazioaren ondorioz eman da. Teknologia berriek hazkunde nabarmena eragin dute mundu osoan finantza-produktuen jabetzan eta erabileran, finantza-inklusio globala hobetuz. Zehazki, inkesta horrek aipatzen du herrialde batzuetan, hala nola Txinan, transakzio digitalak bikoiztu egin direla azken urteetan. Finantza-transakzio digitaletarako trantsizio azkar horrek pentsaraz diezaguke eskudirua gainditzeko bidean daudela eta, litekeena da transakzio digitalek finantza-munduan lekua irabazten jarraitzea, baina funtsezkoa da aurrerapen hori modu inklusiboan eta jasangarrian egitea. Teknologia berrien etorkizuna gizarteak erronka horiei aurre egiteko eta komenigarritasunaren eta segurtasunaren arteko oreka aurkitzeko moduaren arabera izango da.

Nire ustez, ezin da ukatu digitalizazioa areagotzeak onurak dakartzala; finantza-kudeaketaren eraginkortasuna, adibidez, baina teknologiaren mendekotasunarekin lotutako arriskuak ere kontuan hartu behar dira. Horregatik, funtsezkoa da erregulazio-politikak eta segurtasun-neurriak behar bezala egokitzea, egon daitezkeen arriskuei aurre egiteko eta gizabanako guztiek finantza-zerbitzu digitalean sartzeko eta haietaz baliatzeko aukera dutela bermatzeko.

6. BIBLIOGRAFIA

Banco de España. (2023). *Portal educativo*. <https://portaleducativo.bde.es/educa/es/>

Banco Mundial. (s.f.). Inclusión financiera. <https://www.bancomundial.org/es/topic/financialinclusion/overview>

Banco Santander. (2023, 31 mayo). Sala de comunicación. *¿Cómo ha avanzado la inclusión financiera en el mundo en los últimos diez años?* <https://www.santander.com/es/stories/avances-inclusion-financiera>

Barruetabeña Lorente, E. (2020). La influencia de las nuevas tecnologías en la inclusión financiera. *Boletín económico / Banco de España, n. 1, 2020*.

Bazán, J. E. L., Oscar, V., & Alfaro-Calderón, G. G. (2021). Educación financiera: Origen, análisis y evolución de las aportaciones científicas utilizando técnicas bibliométricas en la Web of Science. *Inquietud Empresarial, 21(2), 35-49*.

BBVA. (2017). Centro para la Educación y Capacidades Financieras. *BBVA Edufin*. <https://www.bbvaedufin.com/sobre-nosotros/>

BBVA. (2023). *Salud financiera*. Salud financiera: ocho indicadores para medirla. <https://www.bbva.com/es/salud-financiera/salud-financiera-ocho-indicadores-medirla/>

Bire, A. R., Sauw, H. M., & Maria, M. (2019). The effect of financial literacy towards financial inclusion through financial training. *International journal of social sciences and humanities*, 3(1), 186-192.

Carballo, I. E. (2020). Inclusión financiera y Empoderamiento de la Mujer: una revisión crítica en base a la literatura.

Carmona, N. (2023, 10 mayo). *Educaweb*. Educación financiera, cada vez más necesaria. <https://www.educaweb.com/noticia/2023/10/02/educacion-financiera-cada-vez-mas-necesaria-21353/>

CCPC. Competition and Consumer Protection Commission (2021). *Business*. Financial Education. <https://www.ccpc.ie/business/about/financial-education/>

CCPC. Competition and Consumer Protection Commission. (2022). *Money Matters*. *Parents' Hub*. <https://moneymatters.ccpc.ie/parents-hub/>

CCPC. Competition and Consumer Protection Commission. (2023, December 5). *Money Matters*. <https://moneymatters.ccpc.ie/about/>

Clichici, D., & Moagăr-Poladian, S. (2022). Financial Literacy, Economic Development and Financial Development: A Cross-Country Analysis. *Romanian Journal of European Affairs*, 22(1).

Cohen, M., & Nelson, C. (2011). Financial literacy: A step for clients towards financial inclusion. *Global Microcredit Summit*, 14(17), 1-34.

De Beckker, K., De Witte, K., & Van Campenhout, G. (2020). The role of national culture in financial literacy: Cross-country evidence. *Journal of Consumer Affairs*, 54(3), 912-930.

- Delgado Tejero, M. (2023). Evolución del ahorro en España desde la pandemia.
- Demirgüç-Kunt, A., Klapper, L., Singer, D., & Ansar, S. (2022). The Global Findex Database 2021: Financial inclusion, digital payments, and resilience in the age of COVID-19. *World Bank Publications*.
- Dirigentes Digital (2023, octubre). *Bolsas y Mercados. La educación financiera progresa adecuadamente*. <https://dirigentesdigital.com/funds-markets/bolsas-y-mercados/la-educacion-financiera-progresa-adecuadamente>
- Encuesta de Competencias Financieras 2021. (2023, 14 noviembre). Banco de España.
- Farida, M. N., Soesaty, Y., & Aji, T. S. (2021). Influence of financial literacy and use of financial technology on financial satisfaction through financial behavior. *International journal of education and literacy studies*, 9(1), 86-95.
- Fernando, J. (2023). *Investopedia. Financial Literacy: What it is, and why it is so important*. <https://www.investopedia.com/terms/f/financial-literacy.asp#toc-what-is-financial-literacy>
- Gavilán, Á. (2023, 14 noviembre). Economía y Estadística. Presentación de la Encuesta de competencias financieras 2021. *Banco de España*.
- German Sparkassenstiftung. (2023). <https://www.sparkassenstiftung.de/en/>
- Goyal, K., & Kumar, S. (2021). Financial literacy: A systematic review and bibliometric analysis. *International Journal of Consumer Studies*, 45(1), 80-105.
- Hinostroza, A., & Ramirez, D. (2023). Políticas y marcos normativos de inclusión financiera. *Revista Moneda N°193*.
- Jiménez, S. R. G., Ortíz, H. B., & Vargas, M. V. (2023). Impacto de la inclusión financiera en el crecimiento económico en México por Entidad Federativa 2013-2021. *Revista Mexicana de Economía y Finanzas (REMEF): nueva época*, 18(3), 9.
- Jump\$Tart Coalition. (2023). Jump\$Tart Coalition for Personal Financial Literacy. <https://www.jumpstart.org/>

Khan, F., Siddiqui, M. A., & Imtiaz, S. (s. f.). Role of financial literacy in achieving financial inclusion: A review, synthesis and research agenda. *Cogent Business & Management*, 9(1). <https://doi.org/10.1080/23311975.2022.2034236>

Leiva, D. D. J. A., & Vergara, G. M. (2019). Falta de educación financiera y su incidencia en la pobreza en los Montes de María. *Revista de Jóvenes Investigadores Ad Valorem*, 2(1), 37-56.

Macías, J. I. S., & López, F. R. (2015). Educación financiera para la inclusión financiera: una hoja de ruta. *eXtoikos*, (17), 17-20.

Mbukanma, I., & Rena, R. (2022). Significance of financial literacy on personal savings behaviour: a study of the City of Tshwane and Mahikeng Municipality employees. *African Journal of Development Studies (formerly AFFRIKA Journal of Politics, Economics and Society)*; Vol. SI, Issue 2.

Muccino, G. A. (2014). La educación financiera en la agenda internacional poscrisis financiera 2008.

Muhammad Ridhwan AB, A., Mohd Zalisham, J., Mohd Narzi Mohd, N., Syahnaz, S., Mohd Shukor, H., & Muhammad Zakirol Izat, M. (2021). Bibliometric Analysis of Literature on Digital Banking and Financial Inclusion Between 2014-2020. *Library Philosophy and Practice (e-journal)*.

Morgan, P. J., & Long, T. Q. (2020). Financial literacy, financial inclusion, and savings behavior in Laos. *Journal of Asian Economics*, 68, 101197.

OECD. (2020). *OECD/INFE 2020 International Survey of Adult Financial Literacy*.

Olcese, A. (2023, 23 marzo). El ahorro de las familias se agota: se reduce a la mitad por la inflación y anticipa un frenazo del consumo. *El Mundo*. <https://www.elmundo.es/economia/macroeconomia/2023/03/24/641c42c8e4d4d8584c8b45b6.html>

Orazi, S., Martinez, L. B., & Vigier, H. P. (2019). La inclusión financiera en América Latina y Europa. *Ensayos de Economía*, 29(55), 181-204.

Ozili, P. K. (2021, October). Financial inclusion research around the world: A review. In *Forum for social economics* (Vol. 50, No. 4, pp. 457-479). *Routledge*.

Parlamento Europeo. (2023). *Eurobarómetro*. <https://www.europarl.europa.eu/at-your-service/es/be-heard/eurobarometer>

PISA 2018 Assessment and Analytical Framework. (2019). Programme for international student assessment. <https://doi.org/10.1787/b25efab8-en>

ProFuturo. Programa de educación digital impulsado por Fundación Telefónica y Fundación “la Caixa”. (2023, 12 julio). Educación financiera: un puente hacia la inclusión en entornos vulnerables. <https://profuturo.education/observatorio/competencias-xxi/educacion-financiera-un-puente-hacia-la-inclusion-en-entornos-vulnerables/>

Ramakrishnan, D. R. (2012, June). Financial literacy and financial inclusion. In 13th Thinkers and writers Forum

Rodríguez Jiménez, A., & Pérez Jacinto, A. O. (2017). Métodos científicos de indagación y de construcción del conocimiento. *Revista Escuela de Administración de Negocios*.

Sirtaine, S. (2023, 13 octubre). El futuro de la inclusión financiera. *Portal FinDev*. <https://www.findevgateway.org/es/blog/2023/09/el-futuro-de-la-inclusion-financiera>

Serrato, L. V. S. (2021). Fortalecimiento de la inclusión financiera en la población rural de Colombia. *Journal of business and entrepreneurial studies*, 5(2), 18-30.

Torres Barreto, M., Plata Gómez, K., & Núñez Rueda, S. (2021, Febrero). Implementación de la fase uno del proyecto “Educación financiera gamificada como estrategia didáctica para el desarrollo de estilos de vida sostenibles”. International Conference on Innovation, Documentation and Education (pp. 545-553). *Editorial Universitat Politècnica de València*.

Vázquez, J. A. (2022, Julio). Dos décadas de educación financiera. *Funcas*. <https://www.funcas.es/articulos/dos-decadas-de-educacion-financiera/>

WSBI. ESBG. (s.f.). <https://www.wsbi-esbg.org/>

Yeze, S. (2023). WSBI fomenta la colaboración y el enriquecimiento financieros en Marrakech, Marruecos. *Financial News & Views*.

ERANSKINA

Esteka: https://repositorio.bde.es/bitstream/123456789/34752/4/EncuestaCompetencias_2021.pdf

i. 2016 urteko inkestaren datu orokorrak:

Adina	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balea Uhartea	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela- Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
18-34	26	23	20	27	23	21	26	21	22	26	26	21	24	25	27	24	24
35-44	22	21	20	24	22	21	19	21	19	22	22	22	23	23	23	22	22
45-54	21	21	20	20	21	21	21	20	21	21	22	21	20	21	20	21	20
55-64	16	17	20	15	17	18	17	18	19	16	15	19	16	16	15	17	16
65-79	16	18	20	14	17	19	17	20	20	16	14	18	17	16	15	17	18

Sexua	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balea Uhartea	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela- Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Gizona	50	50	49	50	50	49	50	49	50	51	50	49	49	48	50	50	50
Emakumea	50	50	51	50	50	51	50	51	50	49	50	51	51	52	50	50	50

Hezkuntza-maila	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balea Uhartea	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela- Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Lehen hezkuntza	50	39	42	53	43	34	56	47	50	48	46	35	42	31	51	38	43
Bigarren hezkuntza	19	26	20	25	25	22	19	22	22	23	23	24	25	25	20	21	23
Unibertsitatea	30	35	38	22	31	43	25	31	28	29	32	41	33	44	28	41	35

Lan egoera	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Norberaren konturako lana	11	10	12	10	13	12	11	13	15	10	13	10	10	9	12	12	11
Besteren konturako lana	34	46	32	47	45	45	37	39	39	44	38	44	47	48	45	50	42
Langabetua	18	12	16	16	13	9	17	14	12	16	20	11	11	12	15	9	15
Jubilatua	15	16	21	15	15	18	14	19	17	13	14	17	17	15	14	16	16
Bestelako inaktiboak	21	16	18	12	14	15	21	15	17	17	16	17	16	16	15	14	15

Familia eitura	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Bikotekidearekin bizi	63	65	64	66	65	67	65	67	68	65	63	66	65	65	69	68	65
Beste heldu batzuekin	25	22	23	23	22	21	25	24	22	24	28	24	24	25	22	23	24
Bakarrik bizi	12	12	13	11	13	12	10	10	10	11	10	10	12	10	9	9	11

Etxearen Errenta osoa	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
<= 14.500	49	25	34	43	26	21	47	35	36	40	56	28	29	26	43	27	45
14.501 - 26.000	25	31	28	27	31	29	26	32	29	29	20	29	33	26	30	29	24
26.001 - 44.500	18	28	23	18	26	28	19	22	22	23	14	32	22	25	17	24	20
> 44.500	8	16	15	12	16	22	8	11	12	9	9	11	16	24	9	20	10

Jaioterria	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Espainia	94	87	93	75	86	91	95	93	93	93	88	91	79	82	88	85	86
Beste herrialde bat	6	13	7	25	14	9	5	7	7	7	12	9	21	18	12	15	14

ii. 2021 urteko inkestaren datu orokorrak:

Adina	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
18-34	25	23	18	26	22	21	24	20	20	24	25	20	25	25	27	24	23
35-44	19	18	17	21	19	17	17	18	17	19	19	18	29	20	20	18	19
45-54	21	21	21	21	21	21	20	21	21	21	22	21	21	22	21	21	21
55-64	18	19	21	16	19	20	20	19	21	19	28	20	17	17	17	18	18
65-79	17	19	24	15	19	21	19	22	22	17	16	21	18	17	15	18	19

Sexua	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Gizona	49	50	48	50	50	49	50	49	50	51	50	49	49	48	50	50	49
Emakumea	51	50	52	50	50	51	50	51	50	49	50	51	51	52	50	50	51

Hezkuntza-maila	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Lehen hezkuntza	50	40	39	42	42	31	52	45	43	51	45	37	37	31	49	37	47
Bigarren hezkuntza	21	24	25	28	24	23	20	22	23	22	25	26	25	25	23	23	23
Unibertsitatea	29	36	36	29	34	46	28	33	35	27	30	37	37	44	28	40	31

Lan egoera	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Norberaren konturako lana	10	10	13	13	8	9	14	11	12	11	9	12	12	7	10	11	8
Besteren konturako lana	42	50	43	53	53	50	38	41	42	46	46	43	47	55	49	51	49
Langabetua	17	6	8	9	8	8	12	9	12	13	19	10	9	8	9	6	11
Jubilatua	15	19	22	12	21	19	15	18	17	14	15	17	15	13	12	16	17
Bestelako inaktiboak	16	15	14	13	10	15	21	20	16	16	12	18	18	17	20	16	15

Familia estruktura	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Bikotekidearekin bizi	65	61	61	67	60	63	65	63	61	65	56	61	64	61	62	64	64
Beste heldu batzuekin	22	24	21	18	23	21	21	23	21	22	23	24	21	24	25	24	22
Bakarrrik bizi	13	15	18	15	17	16	14	14	17	13	21	16	15	15	13	13	14

Etxeko enrenta osoa	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
<= 14.500	37	20	25	21	21	21	41	24	24	31	39	22	23	20	37	16	28
14.501 - 26.000	31	28	26	22	28	23	30	31	32	30	29	30	26	22	30	20	35
26.001 - 44.500	22	32	33	34	32	31	19	29	29	19	21	29	28	28	22	37	24
> 44.500	11	21	17	23	18	25	11	15	15	10	11	19	22	30	11	27	14

Jaioterria	Andaluzia	Aragoi	Asturias	Balear Uharteak	Errioxa	Euskal Herria	Extremadura	Galizia	Gaztela eta Leoi	Gaztela-Mantxa	Kanariak	Kantabria	Katalunia	Madrid	Murtzia	Nafarroa	Valentzia
Espainia	94	89	91	79	83	89	96	91	94	90	85	89	81	80	85	87	86
Beste herrialde bat	6	11	9	21	17	11	4	9	6	10	15	11	19	20	15	13	14